**230 Zeintza.** Leřabiā. Txanpon bat ingi baten gañean ezaři ta arkatz bat igaro bere biāaldean, *irudi biribil* bat mařatudezute: **Leřabiā** deritzaio.



Iltzetxo batek eutsi lokařitxo bati, onen beste mutuřean arkatz bat lotu ta lokařia teinka dala erabiāi ezazute, **leřabil** bat egingo dezute.

Iltzetxoak egindako zuloa bařu-erdia da. Lokařitxoak ařerdia antzezten du.

**Leřabiā**, bere kulatzak bařu-erdia deritzan bařuko kulatz batetik urřutiberdiñean dauzkan leřo gupi itxi bat da.

**231.** *Ařerdia bařu-ereditik asi ta leřabilean amaitzen dan leřo zuzena da. Ařerdi guztiak berdiñak dira.*


**232.** *Ařa bařu-ereditik igaroaz leřabilaren bi kulatz elkartzen ditun leřo zuzena da.*

**Ařa**, bi ařerdi ainbat da eta leřabiā bi atal berdiñetan zatitzen du.

**233** **Leřabilaren luzera.** Ari batez egindako leřabil bat une batetik ebaki dezagun eta *luzean teinkatu dezagun*, leřabilaren luzeraren berdiña dan leřo zuzen bat izango degu. Luzera au ařaren luzeraz erkatzen ba-degu

arkituko degu aña alako iru ta zerbait geiago dala eta au adirazten da esanaz 3,1416 bider añaren luzera dala.

Leñabiā-  
ren luzera  
3,1416 añaz  
kottuta ain-  
bat du.



## Itz-jarduketa

**3325** Leñabiā ikuskatzen dan oiturazko gauzetako batzu aitatu.

**3326** ¿Zer lankaiz mañatzen da leñabiā?

**3327** Leñabiā ¿zer da? ¿Eta añerdia? Eta aña?

**3328** ¿Lilizaiak nola mañatzen ditu luñean biribiñak?

**3329** Leñabil baten añerdiak 4 neurkin neurtzen ditu; ¿zenbat neurtuko añak?

**3330** Txirĩnguts kurpil baten añak 80 neu. neurtzen ditu; ¿zenbat neurtuko dute añerdiak?

## Idatz-jarduketa

**3331** Añerdia ezaguturik leñabiā mañatu; orobat aña ezaguturik.

**3332** Gurdigile batek bi kurpil egiten ditu 2 neurkiñeko aña dutenak eta 14 añerdi dituztenak. Añerdi guztiak egiteko ¿zenbat neurkin zur bear izango ditu?

**3333** 12,5 neurkiñeko aña duan leñabilaren luzera ¿zenbat da? ¿zein bere añerdia?

**3334** Leñabiā baten añerdia 7'n. da; bilatu bere luzera.

**3335** Eskuburdiaren kurpil batek 2 neurkiñeko lefabila du; 600 n. ibiltzeko ¿zenbat bira eman bear ko ditu?

**3336** Lilizai batek, 36 neurkiñeko lefabila dun lilitigitxo baten bilaldean, neurkiñeko 3 zangoñi aldatzen ditu: Zangoñi bakoitza 0,40 laurlekoan baldin ba ditu, bear ditun guztiak ¿zenbat ordaindu bear ko ditu?

**3337** Lefabil bat 6 n. luze da; ¿zenbat da bere aferdia?

**3338** 90 n. aña dun landa biribil bat 4 bira loroz esitu nai da ¿zenbat neurkin loro bear ko dira?

**3339** Bilbel beten kurpilēn aferdiak 0,30 n. dira; kurpil auek ¿zenbat bira emango dituzte 5 aneurkiñeko ibilaldi batean?


**3340** Suburdi baten kurpilak 5 neurkiñeko uztaia dute; orgaenak bi besterik ez; ¿zenbat bira emango ditu bakoitzak 4 aneurkin ibiltzeko?


**3341** Zezen zeibateko uztaia txikienak 60 neurkin aña du eta aundienak 75; bi uztaien tarreak ¿zenbat azal du?

**3342** Doñe gabeukatz baten ofatz aundiena 0,75 neu. luze da. 365 eguneko urtebetean biribil inguruan ¿zenbat ibili izango da?

**3343** Arotz batek mai biribil bat egin bear du 8 notientzat bakoitzari 0,75 n. dagokiola. ¿Zenbat izan bear du maiaren aña?

## MAREZKETAKO EZARPENAK







42'GN. IKASKAIA

## Gogorak


234. **Seikondea.** Ingiaz egin 4 lauki berdin 1, 2, 3, 4, ondoko irudiak erakusten dun lez; mañeztu orobat 2'ren albo bakoitzean beste lauki berdin bat; tolestu orain laukotxo guztiak bata bestearen uñena, toki bererantz eta 6 lauki berdin ide ditun *kutxatxo bat* aterako zaizute; orixe da **seikondea** deritzana; lauki berdiñak **aldeak** dira eta tolesturak **ertzak**.



Seikondeak 6 alde ditu (azkakundea)

**Seikondea** 6 alde lauki berdin idek eraldutako gogor bat eta bere ertzak elkar zutak dituna da.





Lebaia



235. Lebaia zuzena. Idazkortzen kutxatxo bat begiratu; zenbat alde ditu? Berdiñak al dira? Idazkortzen kutxatxok lebaia zuzen baten tankera du.

*Auñeko aldeak berdiñak eta tartideak dira.*

236. *Lebaia*ren oñaldea zutik jartzean azpian gelditzen dana da.

Lebaia *alde-azala* bere aldeena da, ta *oyal osoa* alde aiena ta 2 oñaldeena.



Egito'ko txuntuñak

Txuntuña edozein lertzokodi oñaldetzat, eta aldetzat erpin batean batzen diran irukiak ditun

gogor bat da.

## Itz-jarduketa

3344 Seikonde ta lebaia zuzenaren tankera duten gauzak zenbat ikusten dira? Ongi berezi.

3345 Gogor mordoska batean seikondea ta lebaia berezi.

3346 Zenbat alde eta ertz ditu seikondeak?

3347 Zenbat alde eta ertz berdin ditu lebaia zuzenak?

**3348** ¿Nun ikusi dezute txuntuñen bat? Txadon-dor'eak ¿nola amaitu oi dira?

**3349** Aundiera berdingeko seikonde ta lebañak egin ingi gogoñaz. Beren zabaltzea ikuskatu.

**3350** Kutxa bat neurtu.—Bere aldeen azala banaka bilatu estalkirik gabe; guziak bildu —Kutxaren alde azala arkitu dezute.

**3351** Lengo ebazkizunari oñaldeen azala erantsi ta kutxaren azal osoa izango dezute.

## Idatz-jarduketa

**3352** Ginbalarentzako ingoñezko kutxa batek seikonde baten tankera du; ertzak 0,25 n. neurtzen ba-du, bere aldeak ¿zer azal dute?


**3353** Seikonde tankerako ari-mokor batek 1,25 n. eko ertza du; bere kaizua arkitu.


**3354** Zuaiztxo bat babesteko lebaña tankerako kutxa batez esitu da, ta onek neurtzen du 1,50 n. goibe ta alboko aldeak 0,50 n. eta 0,40 n. ¿zenbat zur eralgi da?

**3355** 7,80 n. luze, 5,60 n. zabal eta 4 n. goibe dan are bat zuritu nai da. Neurkin lautuko 1,20 laurleko ordaintzen dala ¿zenbat ordainduko da lau orma ta sapaiaगतिक, ate ta leioen artean 58 neurkin neurtzen ba-dute?

**3356** Txuntur batek oñaldetzat 1,20 n. albo dun lautu bat dauka; goibea 2,45 n. baldin ba-da; alde-azala ¿zenbat da?


## MAÑEZKETAKO EZARPENAK





## 43'GN. IKASKAIA



## Gogor biribilak



237 Buldua. Eskuan kutxa biribil bat ar dezagun. Begiratu oñaldea, ¿zer irudi da au? Kutxa au buldu bat da.

Buldua, oñaldetzat bi obo dauzkan gogor biribil bat da.

238. Txunturbiġa. Gozokiak erosten dituzutenean ingi-biribil txořotx batean ipintzen dizkitzute, ¿zer tanke-ra du? Mutuř zořotza dun gogor biribil bate-na esango dezute; arkatzaran mutuřagatik oro bat esango diazute zořozkiřetik ateratzen dezutenean. Ingi biribil txořotxa ta arkatz mutuřa, txunturbiġak dira.



Txunturbiġa, bere oñaldea leřabiġa dun gogor biribil mutuř zořotza da.





**239. Boronbiā.** Ona pilota bat, borobil asko ikusten dezute.

3357 Ostiko-pilota, puxtañiak, lutelesti boiā bezela biribiāk diran gogoñak boronbiāk dira.

Boronbiā, ganbiāren kulatz guztiak bañu-erditik urutiberdiñean dauzkan gogoñ biribiā da. Bañu - erditik ganbiāren une baterañoiko tartea añerdia da.

## Itz-jarduketa

**3357** Beste batzuen tartean berezi ikasitako 3 gogoñak ¿Zergatik berezten dira?

**3358** ¿Zer da boronbiā? ¿Txunturbilā? ¿Buldua?

**3359** ¿Zein dira bulduaren alde lauak?

**3360** ¿Zein da txunturbilāren alde laua?


**3361** ¿Txunturbil, buldu, boronbil tankerako zeintzuk gauza ezagutzen dituzute?

**3362** ¿Zer tankera dute arkatza mutur zoñoztuak, gaimelontzi batek?

**3363** Buldu, txunturbil eta boronbil utsak eta sendoak izendatu.

**3364** Mañeztu gogor oiek eta beren azkatzea aztertu.

## MAÑEZKETAKO EZARPENAK



---

---

# EBAZKIZUNAK

## I

### Zenbakeiketa ta Zenbakenketa

**Ebazkizun eredia.** Tximisburdi batean 14 bidazti dijuaz barnean, aurreko lekolauan 8 ta atzekoan 10, ¿zenbat bidazti dijuaz guztira?

	EIKUNA
Tximisburdiak daramazki $14 + 8 + 10 = 32$ bidazti	14
	8
Erantzuna: Tximisburdiak 32 bidazti daramazik	10
	<hr/>
	32

**3365** ¿Zenbat bide dago Madrid'etik Irun'era Avila'tik zear, Madrid'etik Avila'ra 114 aneurkin, Avila'tik Valadolid'era 128 aneurkin, Valadolid'etik Burgos'era 121 an, Burgos'tik Alsasu'ra 166 an, ta Alsasu'tik Irun'era 102 aneurkin baldin ba-daude?

**3366** Bitx'en jayo zan Balmes 1.810'gañen urtean eta 1.848'gañenean il zan; ¿zenbat urte bizi izan zan?

**3367** Etxalde batean aldatu dira 246 sagartze, 153 madaritze, 84 aranondo, 49 gereziondo, 74 muxikondo, ta 82 mertxikondo; ¿zenbat zugatz aldatu dira guztira?

**3368** Kistobal Kolon'ek 1.492'gañen urtean idoro zuan America: au idoro zanetik ¿zenbat urte izango dira 1.942'gañen urtean?

**3369** Aita batek 64 urte ditu ta bere semeak 35; ¿zenbat urte gutxigo ditu semeak aitak baño?

**3370** Perdiñanda Deuna 1.199'gañen urtean jayo zan, eta 1.248 gañenean jabetu zan Sevilla'z; ¿zenbat urte zitun Sevilla'z jabetu zanean?

**3371** Ikaslari batek ileko 75 laurleko irabazten zitun, baña bere ikaszaletasuna ta zintzotasuna ikusita ileko 15 laurleko geitu zizkioten; ¿zenbat irabazten du ilean?

**3372** Sukaldarime batek ugolutan 3,80 laurleko xautzen ditu, aragitan 5,85, ta azkenakitan 2,60 ta oraindik 4,50 laurleko gelditu zaizkio; ¿zenbat txindikin irten zan etxetik?

**3373** Sierra Navada'n «Mulhacen» tontoñak 3.481 neurkin goi ditu eta Auñamendi'n «Mendi Galdua»-k, 3.351 neurkin; ¿zenbat geigo lenbizikoak bigaírenak baño?

**3374** Eskorial'en koskoaren goibea 100 neurkin da eta Burgos'ko goterítxaunaren orátzak 84 neurkin dituzte; ¿zenbat gorago Eskorial'koa Burgos'koak baño?

**3375** Ardolari batek saltzen ditu, lenengo salaldian 25 upel ardo 1.890 laurlekoan; bigaíren salaldian 43 upel 3.780 laurlekoan eta azkenik 56 upel 5.480 laurlekotan; esan zenbat upel saldu ditun eta zenbat ordaindu dizkioten

**3376** 1.900'gaíren urtean Joseba Mirena'k 15 urte zitun; 1.947'gaírenean ¿zenbat izango ditu?

**3377** 1 914'gaíren urtean nere aitak 57 urte zitun; ¿zein urtetan beteko zaizkio 80?

**3378** Ebro ibaia 928 aneurkin luze da; Duero 910 eta Guadiana 825 aneurkin. Duero ¿zenbat geigo Guadiana baño? ¿Eta Ebro zenbat geigo Guadiana ta Duero baño?

**3379** Sugurdi batek 52 000 anaztaki azta du, ikazburdiak 18.000 anaztaki ta gañera daramazki 8.000 anaztaki ur eta 3.500 ikatz; ¿zenbat azta dute sugurdiak eta ikazburdi zamatuak?

**3380** 10.500 gizon sartu ziran guderaso batean, 348 il, 598 zauritu eta ostenduak 71 izan ziran; gai ziran gizonak ¿zenbat gelditu ziran?

**3381** Aita batek 340 laurleko zeuzkan auíezkitegian, lau ipiñaldi egiten ditu, 40 laurlekoa, 25'ekoa, 30,50'koa ta 10,80 laurlekoa; bere emaztearen gaxoaldian 165,50 laurleko ateratzen ditu; zenbat gelditzen zayo auíezkitegian?

**3382** Kenketa baten kengaiia 5.869 da, eta kenkiña 234, ¿zenbat da kenkia?

**3383** Bi zenbakiren geikiña 2.540 da; txikiena 984 baldin ba-da, bestea ¿zenbat?

**3384** Bi anairena dan zisku batean 985 laurleko dau-de; gaztienari 365 laurleko ba-dagozkio, ¿zenbat du za-fenak?

**3385** V Pilipa 1.701'tik 1.746'ra izan zan bakaldun eta bere seme VI Perdiñanda 1 746'tik 1.759'raño; semea baño ¿zenbat urte geigotan izan zan aita bakaldun?

**3386** Ikastetxe batean 276 ikasle dira; 2'gañen ikaste-gian 45 ikasle dira; 3'gañenian 50; 4'gañenian 67, ta 5'gañenian 72; ¿zenbat ikasle ote dira lenengoan?

**3387** Langile batek iñaren azkenean 248 laurleko jaso bear zitun, baña nagusiak auřetatu egin zizkion, ba-tean 38,50 laurleko, bestean 31,75 ta beste batean 15.25; iñaren azkenean ¿zenbat jasoko du?

**3388** Gudalburu batek biztokiz aldatzean 1.415 laur-lekoan erosi zituan etxe tresnak 949 laurlekoan saltzen ditu, ¿zenbat galdu du salketan?

**3389** Ařoztegi batean bidazti baten xaupenak auek izan dira: burdia 2 laurleko, gosaria 2,50 lrk., bazkaria 5 lrk, aparia 6 lrk, gela 6 lrk. Bidaztiak, ordaintzeko 50 laurleko txi idingia eman du; ¿zenbat biurtu bear diote?

**3390** Koldobika'k dauzkan baño 150 laurleko geigo ba-lituzke 390 laurleko txiřingutsa erosi alko luke ta ga-ñera 32 laurleko geldituko litzazkioke, ¿zenbat txindi dauka Koldobika'k?

**3391** Gabeukatz bat bere estuntza ta guzti 32,75 laurleko ordaindu da; ¿zer saneuři du estuntzak gabeuka-tzarena 25,50 laurleko baldin ba-da?

**3392** Notin batek erosten ditu txauneskiño bat, ařa-bitak bat, eta txirol bat 1.800 laurlekokin. Ařabitak 125 laur-leko aldin du eta txirolak 75 laurleko, txauneskiñoaren saneuřia ¿zanbat da?

**3393** Ardo salostari batek 2.526 onil zeuzkan; beste 1.692 geigo erosten ditu; ¿zenbat dauzka guztira?

**3394** Salostari batek 94 laurleko okañi ditu, gero 508 laurleko ta azkenik 256 laurleko; guztira ¿zenbat okañi du?

**3395** 85,30 laurleko jasoan duan mai bat eta 98,50 laurleko jasoan duan arasa bat ordaintzeko ¿zenbat txindi atera bearko ote da?

**3396** 875 urangi erosi zitun arnari saltzale batek 384 saldu ditu, ¿zenbat gelditzen zaizka salgai?

**3397** Azaleztari batek idazti baten 7.580 iyeki azaleztatu eman bear zitun; bi alditan 1.485 ta 1.634 iyeki eman ditu, ¿zenbat dauzka oraindik emateko?

**3398** Bi bei saldu dira, lenengoa 1.350 laurlekoan eta bigarrena 1.460 laurlekoan, ¿saneuri osoa zenbat da?

**3399** Emil'ek 982,75 laurleko zor ditu; ordaindu ditu 735, ¿zenbat zor du oraindik?

**3400** Mai baten gañean iru ingurazti pila daude; lenengoan 148 daude, bigarrenean 185 ta irugarrenean 168; guztira ¿zenbat dira?

**3401** 678 laurleko ordainkizun bat ordaintzeko 1.000 laurleko txindingia ematen da, ¿zenbat biurtuko diote?

**3402** 754 laurleko ordaintzeko 500 laurleko txindingi bat eta 100'eko beste bat ematen da; ¿zenbat gelditzen da zor oraindik?

**3403** ¿Zenbat arkume dira iru artaldetan, lenengoan 254, bigarrenean 186 ta irugarrenean 436 baldin ba-dira?

**3404** Okaindari batek kutxan 15.325,50 laurleko ipiñi ditu ta gero 9.875,75 laurleko atera ditu, ¿zenbat gelditu zayo kutxan?

**3405** ¿Zer kopuru bear du sendi batek 7,45' laurleko-  
ren ogia, 12,50'ren aragia ta 4,50'ren gaimela ordaintzeko?

**3406** Bi buzpurdik dauzkate, batek 9.360 anaztiki ikatz eta besteak 785 anaztiki geigo; ¿zenbat anaztiki azta dute bien artean?

**3407** Mofoi bati, elikatzen ez danean eguneko 5 laurleko ematen zaizkio eta elikatzen danean 3,25; ¿zenbatean ateratzen da elikatura?

**3408** Ilabetean zenbat irabazten du sendi batek aitak 150 laurleko, amak 84,25 ta seme zaíenak 96,80 laurleko irabazten badituzte?

**3409** Kayola batek bańuko txori ta guzti 140,50 laurleko aldin du; kayolak bakańik 50,95 laurleko; ¿zer aldin dute txoriak?

**3410** Madrid'etik Barcelona'ra 707 aneurkin daude; 329'gańen aneurkińerańo iritxi dan bidazti batek ¿zenbat dauka igarotzeko?

**3411** Castilla la Nueva'ren azal osoa zenbat da Madrid erkiarena 7.989 aneurkin lautu, Toledo'rena 15.257, Ciudad Real'ena 19.608, Cuenca'rena 17.193 eta Guadalajara'rena 12.113 diralarik?

**3412** Suiza ta Itali tartean dagon Sangotardo mentzuloa 14.920 neurkin luze da, España ta Prantzi tartean dagon Canfranc 7.875; ¿zenbat luzego da lenengoa bigańena bańo?

**3413** España'k 1.880'gańen urtean 16 551.647 biztanle zitun eta 1.920'gańenenan 21.850 600 ¿zenbat biztanle geitu ziran aldi ońetan?

**3414** Paul'ek 245 txartel irabazi ditu ta Kepa'k 60 gutxigo; bien artean ¿zenbat txartel irabazi dituzte?

**3415** Bi idazti, bat 2,50 laurlekoa ta bestea 1,75 laurlekoa ordaintzeko 5 laurleko eman dituan ume bati ¿zenbat biurtuko zaio?

**3416** Perdińanda'k 5 ogerleko ematen ditu 13,75 laurleko galtza batzuk eta 6,45'eko geńontze bat ordaintzeko; ¿zenbat biurtu bearko diote?

**3417** 1910'gańen urtean Madrid'ek 599.897 biztanle zitun, eta 1.930'gańenean 809.345; aldi ońetan ¿zenbat geitu ziran biztanleak?

**3418** ¿Zenbat da etxe baten saneuría etxagile bati 13.500 laurleko, gaiak 18 300, arotzari 5.630, igeltsulariei 2.860 eta beste xaupen batzuk 1.675 laurleko ordaindu baldin ba-dira?

**3419** 100 laurleko txindingi batetik zenbat gelditzen da oe bategatik 45,50 laurleko ta 4 burusigatik 10,50'na laurleko ordaindu ta gero?

**3420** Erki batean 127 notin il ziran igandean, 120 astelenean, 145 asteartean, 158 asteazkenean, 139 ostegunean, 150 ostiralean eta 142 larunbatean; ¿zenbat il ziran aste artan?

## II

### Zenbakoizketa ta zenbanaketa

**Ebazkizun eredia.** *50'na neurkiñeko 49 oial zati saltzen ditu salostari batek 5,60 laurlekotan neurkiña; ¿zenbat aterako du salketan?*

Iru zatiak batera neurtzen dute  $49 \times 50 = 2.450$  neurkin.

Neurkin auen jaso  $2.450 \times 5,6 = 13.720$  laurleko.

Erantzuna: Salketan aterako du: 13.720 laurleko.

**3421** Ola bateko langile batek egunero 0,25 laurleko xautzen ditu tabakotan eta 0,30 otordueteko edaritan; 365 egunen buruan ¿zenbat xautzen du?

**3422** Abeldun batek 68 arkume erosten ditu buruko 22,50 laurlekoan, bataz beste; sei ilabeteren buruan, guztiakin 182 laurleko xaututa, 35'na laurlekoan, bataz beste saldu ditu. Esan irabazi ala galdu egin duan eta zenbat.

**3423** Anaztiki bat txokotalek anaztiki bat bareztik alako bi saneurí du eta anaztiki bat akeidak txokolateak alako bi. Anaztiki bat barezti 2,10 laurlekoan dagola jakiniñik arki bedi txokolatearen eta akeitaren saneuría.

**3424** Bidazti batek etxetik lekore egon dan bitartean 440 laurleko xautu ditu, asteko 55 laurleko; ¿zenbat aldi igaro du senditik aldenduta?

**3425** Zoñota batek iroireneko 19 ontzi ur botatzen ditu losko batean eta beste batek 25 ontzi aldi berean;

baña zufutoki batek iroireneko 12 ontxi igesegiten uzten du; 54 gabeukiren buruan ¿zenbat ur izango da loskoan?

**3426** Zofoa batek 21 ontxi ur ematen ditu iroireneko ta besteak 57; ¿zenbat ur emango dute gabeuki 1 eta 20 iroirenetan?

**3427** 2.720 ontxi itxikitzen ditun bildegi bat bi zofo-tatik ustü ditekete, batek iroireneko 47 ontxi uzten ditu igarotzen eta besteak 38 ontxi iroireneko. Bi zofoak batean idikitzen baldin ba dira ¿zenbat aldi bearko da ustutzeko?

**3428** Eri-zumardi batean 45'na zugatzeko 14 efenka ziran; aizeak 137 zugatz bota baldin ba-zitun, ¿zenbat gelditu ziran?

**3429** Bi eulek 33'na neurkiñeko 12 eokin zati egin bear zituzten bakoitzak. Biak egunean 10 gabeuki egiten zuten lana eta lenengoak gabeukiko 0,60 neurkin egiten zitun eta bigařenak 0,50 neurkin bakařik; ¿zenbat egunetan bukatuko zuten beren lana?

**3430** Salerosle batek kalikuta erosten du 24 laurlekotan 15 neurkiñak eta saltzen du 67,20 laurlekotan 32 neurkiñak. ¿Zenbat neurkin saldu bearko ditu 48 laurleko irabazteko?

**3431** Ařaunkari batzuk ařaunkada bakoitzean 6 neurkin auřerazitzen dute izontzia; ¿zenbat ařaunkada eman ote dituzte 2.896 neurkin ibili baldin ba-dira?

**3432** Salostari batek eokiña erosi du, 8 laurlekoan neurkiña eta 11,50 laurlekoan saltzen du, 6 egunean 168 laurleko irabazten ditula; ¿eguneko zenbat neurkin saldu ditu?

**3433** Notin batek artzen ditu, 1.000 laurleko 5 txindingi; 100 laurleko 8 txindingi; 50 laurleko 6 txindingi ta 25 laurleko 12 txindingi; ¿zenbat artu du guztira?

**3434** Langile batek 300 laurleko irabazi ditu 30 eguneko ilabetean. Bere eguneroko irabazia 15 laurleko izanik, ¿zenbat egunetan lan egin du?

**3435** Gurdi baten kurpil batek 4 neurkiñeko ingurua du; 16.400 neurkiñeko ibilaldian ¿zenbat bira emango ditu?

**3436** Valencia'ko baratzaletako batek 12 kutxa uran-



gi bidaltzen ditu bakoitzean 360 urangi dirala; zenbat amabiko diran atera.

**3437** Kurpil batek 75 bira egiten ditu iroiren bakoitzean; ¿zenbat egingo ditu 85 iroirenetan?

**3438** ¿Zenbat da 26 atoren jaso atoreko 6,45 laurlekoan?

**3439** Etxe baten aurrealdean 48 leio dira eta leio bakoitzean 12 leiar; leio guztietarako ¿zenbat leiar beariko dira?

**3440** Astete'ren Kistar Ikastiaren argitaldi batean ¿zenbat leio dira baldin 80 orrialde ba-ditu ta orrialde bakoitzean 33 leio?

**3441** 57 anaztiki loroz ¿zenbat amabiko iltze egingo dira anaztiki bakoitzaz 224 iltze egiten baldin ba-dira?

**3442** Burnibide bateko bultzibiak, neurkiñeko 4 laurleko aldin dute, ¿zenbat luzeko bide bikoitza (lau leio bultzibi) egin al izango da 10.000.000 laurlekokin?

**3443** 4 buzpurditan dagon gariak zer jaso du bakoitzak 75 zaku ba-ditu ta zaku bakoitzak 50 laurleko aldin ba-du?

**3444** Gaztel Elizti Laburgoaren 45 iyekiren jaso ¿zenbat da iyekiko 2,50 laurlekoan?

**3445** 35 ginbailegatik 297,50 laurleko ordaintzen baldin ba-dira, ¿zenbat aldin dute 3 ginbailek?

**3446** ¿Zenbat ordaindu bear da 150 anaztakiko txekor batengatik anaztiki bat 3,75 laurlekoan dala?

**3447** Azalezteri batek 0,38 laurleko okaintzen ditu idazti bat azalezteagatik; 55,10 laurleko artzen baldin ba-ditu ¿zenbat idazti azaleztu ote ditu?

**3448** 3.950 oski biko eman ditun ola batek ¿zenbat artuko du biko 18 laurkoan izan ezker?

**3449** Erukietxe bat 3.420 ogiz ornitu dun okin bati ¿zenbat ordaindu beariko zaio 2 anaztakiko ogia 1,20 laurlekoan izanik?

**3450** Ola batek 25.000 biko galtzerdi motz eman bear

zitun; bakoitzak 1.250 biko ditun 7 kutxa ematen ditu; ¿zenbat dauzka oraindik emateko?

**3451** ¿Zenbat jaso izango dute 875 sagrafak, 25 sagar 1,25 laurlekoan ba-dira?

**3452** ¿Zenbat ingi oñi dira 58 eñesmatan, eñesma bakoitzak 20 esku baditu ta esku bakoitzak 25 oñi?

**3453** 13 aariren saneuñia 624 laurleko danean, ¿zenbat bakoitzarena?

**3454** ¿Zenbat ordaindu bearko da 35 bazkarigatik bakoitza 3,75 laurlekoan eta 28 gosarigatik bakoitza 1,25 laurlekoan?

**3455** Bi bartileokime zatiren saneuñi osoa zenbat da lenengoa 48,50 neurkin luze ta bigarena 34,50 neurkin luze ba-da ta neurkiñaren saneuñia 1,60 laurleko baldin ba-da?

**3456** ¿Zenbat legatz erosiko dira 80 laurlekokin 3'ren jaso 11,25 laurleko baldin ba-da?

**3457** Baltzu batek lursail bat erosten du 648.000 laurlekoan eta 12 saletan zatitzen du auetako bakoitza 65.000 laurlekotan saldurik, ¿zenbat irabazten du salketan?

**3458** ¿Zenbat ordaindu bear dira 20 biribil ingi margoztu 0,85'na laurlekoan eta 36 biribil 0,75'na laurlekoan?

**3459** 80 neurkin zitun oial zati batetik 39 galtza egin dira eta oraindik 11,60 neurkin gelditu dira; galtza bakoitza ¿zenbat oialez egin da?

**3460** ¿Zenbat zaku gari erosiko dira 8.346 laurlekokin, baten saneuñia 26 baldin ba-da?

**3461** Urutidazkin ariak ipintzeagatik 995 laurleko ordaintzen ba-da aneurkin bakoitzeko; ¿zenbat ordainduko da 375 aneurkiñean ipintzeagatik?

**3462** Aterki baten jaso 6 laurleko baldin ba-da, ¿zenbat aterki erosiko dira 276 laurlekoz?

**3463** ¿Zenbat jaso izango dute artilezko 8 burusik 25,50'na laurlekoan eta barkilezko 6'k 15,50'na laurlekoan?

**3464** Etxe bateko 5 ate margoztea ¿zenbat ordaindu bearko da, ate bakoitza lekoretik margoztea 3,75 laurleko

ta barnetik margoztea 2,25 laurleko ordaintzen baldin ba-da?

**3465** Indieun neurkin baten saneufia zenbat ote da 184 neurkin 266,80 laurleko ordaindu ba-dira?

**3466** Txekor batek lenen malako 16 anaztahi aragi eman ditu ta anaztahiak 4,50 laurlekoan saldu da, ta bigarren malako 37 anaztahi saldurik bakoitza 3,50 laurlekoan, zenbat atera da salketatik?

**3467** Lotura bat osatzeko 18 jostotatz bear dira; 5.616 jostotatzez zenbat amabiko lotura egingo dira?

**3468** Zenbat txindi zuan notin batek, gabeukatz bat 50 laurleko, estuntza bat 8,50 laurleko eta iru xerenda 1,25'na laurleko ordaindu ondoren oraindik 27 laurleko gelditu ba-zaizkio?

**3469** 17.472 urangi bidaltzeko 36 kutxa bear izan ba-dira, esan zenbat amabiko diran kutxa bakoitzean.

**3470** Bei batek 15 ontzi esne ematen du egunero; ontzi bakoitza 0,60 laurlekoan saltzen ba-da, 31 eguneko ilabeteren buruan zenbat izango da salketak eman duana?

**3471** Zer mozkin ematen du jabegotza batek baldin mozkin oren laurdena aski ba-da 4,50'na laurleko irabazten duten 32 langileri 7 egunean ordaintzeko?

**3472** 0,55 laurleko zenbat ontzi ardo erosi alko dira 1,65'na laurleko 48 ontzi gaimelen saneufiaz?

**3473** Egunean 3,25 laurleko xautu ta astean 1,25 laurleko txiroei ematen dizkien notin baten urteko mozkiña zenbat da?

**3474** Baratzai batek 0,45'na laurleko zenbat zangoñi saldu bearko ditu 1,30'na laurleko 144 leiañezko juale ordaintzeko?

**3475** Langile batek bere lanagatik ilero 45 laurleko artzen ditu ta gañera egunero bere elikaturangatik 3,25 laurleko. Zenbat eman zaio langileari 365 eguneko urte betean?

**3476** Notin batek 12 gorutz egiten ditu asteoro eta bakoitzagatik 1,25 laurleko artzen du, eta 15 galtza 1,80 laurlekoan bakoitza, zenbat irabazi izango du 26 astean

xaupenak gorutzeko 0,15 laurleko ta galtzako 0,20 baldin da-dira?

**3477** Ontxi bat zilar-biziren azta 13,60 anaztaki izanik, ¿zenbat ontxi zilarbizi eukiko ditu burnizko upel batek guztira 1.310 anaztaki ta upel utsak 134 anaztaki azta ba-dute?

**3478** 8 arkakaratsen jaso 12,40 laurleko baldin bada, ¿zenbat izango da 5 efenka arkakaratsena bakoitzean 19 landare baldin ba-dira?

**3479** Etxe batean, euri urak eramateko 8 zoñoten ipiñi dira; bakoitza 8,50 neurkin luze da eta neurkiñeko 1,25 laurleko aldin du; ¿zenbat ordaindu bearko zaio ipintzaleari?

**3480** Bi iturbegik iroireneko ematen dute, batek 3 ontxi ta besteak 2; 18.000 ontxi itxikitzen ditun biltegi bat bien artean betetzen ¿zenbat egun bearko dituzte?

**3481** Lorezai batek erosi ditu, 250 lorontzi 0,15'na laurlekoan, 160 lorontzi 0,18'na laurlekoan eta 120 lorontzi 0,25'na laurlekoan, ¿zenbat ordaindu bearko du?

**3482** Zenbat izango da arkatz baten saneuria 75 amabikorena 90 laurleko danean?

**3483** Joskin batek 85 neurkin oial erosten ditu 12,50 na laurlekoan, beste ainbeste azpiko 0,85'na laurlekoan; 9,50 laurlekoren uridura egiten ba-diote, ¿zenbat ordaindu bearko du?

### III

## Erospen saneuria

**Ebazkizun eredia.** *Salostari batek 45 laurleko irabazitu 235 laurlekoan saldu duan txiringuts batean; ¿zenbatian erosi zuan?*

Salketa bat irabaziaz egiten degunean, degu; erospeneko saneuria = salpeneko saneuria — irabazia.

Txiringutsaren eros-saneuria =  $235 - 45 = 190$  laurleko.

EIKUNA

235	
— 45	
190	

Erantzuna: 190 laurlekoan erosi zuan.

**3484** Endika'k 39 laurleko irabazi zitun 154 laurlekoan saldu zun jazki batean; ¿zenbatean erosi zun?

**3485** Nekazari batek gurdi bat 755 laurlekoan saldu bear izan du, salketan 239 laurleko galduaz. ¿Zenbatean erosi zuan gurdia?

**Oaia.** Salketa batean galera danean au gertatzen da:  $\text{erospen saneuía} = \text{salpen saneuía} + \text{galera}$ .

**3486** Ale salostari batek 748,50 laurlekoren garia saldu du eta salketan 96,50 laurleko galdu ditu; arki bedi, erospen saneuía.

**3487** ¿Zenbat eramango diate 96 aizkogatik amabikoa 34 laurlekoan baldin ba-da?

**3488** Etxe bat 27.630 laurlekoan saltzean 2.425 laurleko galdu dira; zenbatean erosi zan?

**3489** 7 zaldi saldu dira 1.340 laurlekoan bat az beste; erosketa guztiaren saneuía zenbat zan salketan 725 laurleko irabazi baldin ba-ziran?

**3490** 128 ontxiko ardo gurbil bat artu det, ontxia 0,45 laurlekoan; ekartzea 15,70 laurleko ta bere tokian jartzea 2,50 ordaindu baldin ba-det, ¿zenbatean ateratzen zait gurbila?

**3491** Ardo salostari batek 3.847,50 laurlekotan 225' na ontxiko 38 gurbil erosi ditu. Arki bedi ontxi bakoitzaren eros saneuía.

**3492** Salostedun batek 18 neurkin eokin 396 laurlekoan saltzean neurkiñeko 8 laurleko irabazten ditu. Baldintz auetan arki bedi 54 neurkiñeko eokin baten erospen saneuía.

**3493** Salostari batek troskakizko 15 liluntzi erosten ditu 147 laurlekotan; 3 austen ditu; ¿zenbatean saldu bear ko ditu gañerakoak ez galdu ez irabazi egiteko?

## I V

## Salpen saneuria

**Ebazkizun eredua.** *Nekazari batek txekor bat erosten du 654 laurlekoan eta bi ilabete geroago gizenduta saltzen du 299 laurleko irabaziaz; ¿zenbatian saltzen du?*

Salpen saneuria da *erospen saneuria*+*irabazia*,  
beraz

EIKUNA:

654 laurk.

**Erantzuna:** Salpen saneuria da  $654+299=953$   
laurleko.

+ 299

---

953 laurk.

**3494** Langile sayatu batek zelai bat erosten du 675 laurlekotan eta landu ondoren 85 laurleko irabaziaz saltzen du; ¿zenbatean saldu du?

**3495** Adionezko eñedi erosle batek bi jangela-mai erosten ditu 320 laurlekotan. Antonben batzuk egiten ditu oietan 136 laurlekoan; 80 laurleko irabazi nai ba-ditu, ¿zenbatean saldu bearko ditu maiak?

**3496** Salostari batek txifinguts bat erosten du 185 laurlekotan eta 56 laurleko irabaziz saltzen du; ¿zenbatean saldu du?

**3497** Iraterkari batek txalai bat iragitzen du 45.450 laurlekotan; ¿zenbatean saldu bearko du 5.620 laurleko irabazi nai baldin ba-ditu?

**3498** Ostalari batek 68 onil artzen ditu 1,50'na laurlekoan. Bidariena 4,50 laurleko ordaindu ditu ta gañera bidean 3 onil ausi zaizkio, ¿zenbatean saldu bearko ditu gelditzen zaizkionak 15,50 laurleko garbi irabazteko?

**3499** Notin batek zaldi bat erosi du 1.245 laurlekotan eta 365 laurleko irabaziz saltzen du, ¿zenbatean saldu du zaldia?

**3500** Salostari batek zaldi bat erosten du 1.236 laurlekotan eta kopuru oñen irutik bat irabazi nai du, ¿zer saneufitan salduko du?

**3501** Landetxe-zai batek 5.000 belafondu lotura sal-

tzen ditu 12 laurlekotan eunanaztakia. Lotura bakoitzak 25 anaztaki aztatzen ba-du, ¿zenbat artuko ote du?

**3502** Nekazari batek belardi bat 964 laurlekotan erosten du eta 184 laurleko ordaindu dun loro-sarez esierazi du. ¿Zenbatean saldu bear ko ote du belardia 172 laurleko irabazteko?

**3503** Amabiko bat ator 108 laurlekoz erosi da eta guztira 48 laurleko irabaziz saldu nai dira ¿zenbatean saldu bear ator bakoitza?

**3504** Salosketari batek 5 txekor erosten ditu gizen-tzeko, bakoitza 575 laurlekotan eta saltzean txekor baten eros-saneuñia irabazi nai du. 3 saltzen ditu 1.950 laurlekotan, gañerako bakoitza ¿zenbatean saldu bear du?

**3505** 18 eokin zati erosi ditut 35'na laurlekotan eta zati bakoitzetik 64 musuzapi atera ditut. ¿Zenbatean saldu bear det amabikoa guzira 118,80 laurleko irabazteko?

## V

## G a l g a k

Salgaiak erabili edo eukitzeko ontzien (*kutxa, zaku, upel, e. a.*) aztari deritzaio galga.

Galga  $\leftarrow$  azta osoa — salgaiarena garbi.

Ebazkizun eredua. *45 amaztakiko gizirudi bat daukan mulko batek 54 anaztaki aztatzen ditu. ¿Zenbat da kutxaren azta?*

Kutxak aztatzen du  $54 - 45 = 9$  anaztaki

Erantzuna: Kutxak 9 anaztaki aztatzen ditu.

**3506** Kutxa uts bat 3.500 aztaki aztun da eta beterik 20.500 anaztaki aztun da, ¿zer azta du salkariak?

**3507** Ardoz betetako upel bat 286 anaztaki aztun da; ¿zenbat da lobelaren azta upel utsarena 35 anaztaki baldin ba-da?

**3508** Ontxi bat gaimelek 0,915 anaztaki azta du. 189 ontxiko gaimel gurbil baten azta osoa arki bedi, gurbil utsarena 26,800 anaztaki dala jakiñik

**3509** Esne ontzi batek utsik 2,550 anaztaki azta du;

¿zenbat azta izango du 12 ontzi ba-dauzka, ontzi bakoitzak 1,03 anaztuki azta dualarik?

**3510** Esnez betetako ontzi batek ontzi ta guzti 35,59 anaztuki azta du; ontzi ofek utsik 5,750 anaztuki azta du; ¿zenbat ontzi esne dauzka ontzi esne bakoitzak 1,03 anaztuki azta izanik?

## VI

## Baten saneuria

**Ebazkizun erødua.** *Abeldun batek 17 aari saltzen ditu 646 laurlekotan 102 laurleko irabaziaz; ¿zenbatean erosi ote zuan aari bakoitza?*

Abeldunak erosi zitun 17 aariak 646 laurleko — 102 laurleko = 544 laurleko.

Aari bakoitza erosi zun 544 laurleko:  $17 = 32$  Irk.

Erantzuna: Aaria 32 laurlekoan erosi du.

**3511** Igeltsulari batek 9 egunetan lan egin du nekazari baten etxean eta onek ordaintzat eman dizkio, 3'na laurleko 4 olasko, 3'na laurleko 5 untxi, 4,50'na laurleko 5 anaztuki gurin eta 9 laurleko txinditan; ¿zer lansari eman dio eguneko?

**3512** Gizuridi salerosle batek 36 gizurudi erosi ditu 90 laurlekotan. 4 gizuridi autsi ondoren 38 laurleko garbi irabazi nai baldin ba-ditu; ¿zenbatean saldu bearko du gelditzen zaizkionetako bakoitza?

**3513** Garazlari batek 150 anaztuki lusagar erosi ditu 45 laurlekotan Izozteak 30 anaztuki galdu dizkio baña 21 laurleko irabazi nai ditu; ¿zenbatean saldu bearko du anaztakia?

**3514** Txekor batengatik 350 laurleko ordaindu dira; ¿zenbat izango da aari baten saneuria 20 aarik 4 txekofoek ainbat aldin ba-dute?

**3515** 8 amabiko esku-zapi erosten dira 240 laurlekotan; ¿zenbat da eskuzapi baten saneuria?

**3516** Jostun batek soñeko bat egiteko 4 neurkin eokin andeatzen ditu, neurkiña 16 laurlekoa; azpikoa 4



neurkin 3'na laurleko neurkiña eta gañera egitea ta beste txaupen batzugatik 42 laurleko erasten ditu, ¿zenbatean ateratzen da soñekoa?

**3517** 3 galtza egiteko 6 neurkin oial bear dira, neurkiña 18 laurlekoan, ¿zenbatean ateratzen da galtza bakoitza?

**3518** Saloskari batek 870 laurleko zor zitun, eta ordaintzeko 450 laurleko ta 30 neurkin oial eman zitun; neurkin oialak ¿zenbat aldin zun?

**3519** 22 neurkiñeko oial zati bat 374 laurlekotan saldu da. Neurkiñeko 3 laurleko irabazi baldin ba dira, ¿zer saneufitan erosi zan neurkiña?

**3520** 225 ontziko ardo upel bat 85 laurlekotan erosi da ta gañerako xaupenak 23 laurleko izan dira; ¿zenbat izango da ontxiaren saneufia?

**3521** Lauki bat uztairik gabe 180 laurlekoan da; ufeztu gabeko uztaiiaz 208 laurleko ta ufeztutako uztaiiaz 245 laurleko; ¿zer aldin du ufeztu gabeko uztaiak eta ufeztutako uztaiak?

**3522** Ontxi bat esnek anaztaki bat aragik baño 8 bider aldin gutxigo du; ¿zer saneufi izango du ontxi bat esnek 85 anaztaki aragik 204 laurleko baldin ba-dute?

**3523** Saloskari batek 64 neurkin eokin erosi ditu 9,60 laurlekoan neurkiña; 89,60 laurleko irabazi nai baldin badiu, ¿zenbatean saldu bear du neurkiña?

**3524** Saloskari batek 16 liluntzi erosten ditu 167 laurlekotan, bat iduki ta gañerakoekin 13 laurleko irabazi nai ditu, ¿liluntzi bakoitza zenbatean saldu bear?

## VII

### Aurezketak

**Ebazkizun eredia.** *Arazodun gazte batek 225 laurleko irabazten ditu itero ta eralgi beriz 180 laurleko bakarik, ¿zenbat aufeztu izango du 5 urteren buruan?*

Arazodunak aufezten diñu ilean  $225 \text{ lrk} - 180 \text{ lrk} = 45 \text{ lrk}$ .

Eta urtebetean aufezten du,  $45 \times 12 = 540 \text{ laurleko}$ .

Eta 5 urtean,  $540 \times 5 = 2.700 \text{ lrk}$ .

**Erantzuna.** 5 urteren buruan aufezten du 2.700 laurleko.

**3525** Nekazari batek bere efoldak egitean arkitzen du bere landak 16.295 laurleko eman diotela; abeltzak 4.987 laurleko; landare ta barazki salketak 1.740 laurleko, eta beste gauzak 1.834 laurleko. Lansaritan 3.944 laurleko, ongaritan 1.346 laurleko ta bere etxearen euspenean 5.800 laurleko eralgi ditula jakiñik, ¿zenbat da aúeztu duna?

**3526** Salostedun batek barezti anaztakia 2,40 laurlekoan saltzen du, besteak beñiz 2,60 laurlekoan; ¿zenbat aúeztuko da urtebeteren buruan lenengoari erosita astean anaztuki bat andeatzen ba-da?

**3527** Langile batek urteoro 285 laurleko aúezten ditu, besteak beñiz 148 laurleko bakarik; 25 urteren buruan ¿zer alde izango dute bien txinditzak?

**3528** Iñero 280 laurleko jasotzen ditun arazodun batek 75 laurleko aúezten ditu iñero; 2 urte ta 9 iñabetetan ¿zenbat aúeztu izango du?

**3529** Ardolari batek 225'na ontxiko 15 gurbil ardo saltzen ditu iñero. Gurbila 60,50 laurleko ordaindu zula ta ontxia 0,65 laurlekoan saltzen dula jakiñik, ¿zenbat aúeztu izango du 2 urteren buruan bere eralgiak urteko 6.200 laurleko izan ba-dira?

**3530** Gazte batek egunero 0,25 laurleko aúezteko oitura ona artu du. ¿Zenbat aúeztu izango du 60 urte beteko ditunean 18 urtekin asi baldin ba-zan aúezten? (Urtebiseidunak ez dira gogoan euki bear).

**3531** 30 eguneko iñabetean langile batek 24 egun lan egin du egunean 6,75 laurleko irabaziaz Egunean 4,50 laurleko xautzen baldin ba-du, ¿zenbat izango du il azkeanean?

**3532** 14.500 laurlekoz, 700 laurlekora igoko diran egokitzeko txaupen batzuekin etxe bat erosteko abagunea izan du arazodun batek. Urtean 950 laurlekotan eraendu naiago izan du. Etxearen aldiña, egokitzeko txaupen da guzti, ¿zenbat aldiko etxesariz ordaindu izango du?

**3533** Beidun batek bi esnebei erosten ditu 2.600 laur-

lekotan. Berealaxe 975 laurleko ematen ditu ta gañerakoa ilero 125 laurleko emanaz ordaintzera bearpetzen da, ¿zenbat aldiren buruan izango dira beiak bere?

**3534** Langile batek egunean 0,25 laurleko xautzen ditu tabakotan, astean 1,25 edaritan eta ilean 3,50 laurleko beste alpefikako xaupen batzuetan. Arki bedi zenbat aurreztuko luken urte betean eta 15 urtean oitura txar oiek utzi ezkeru.

**3535** Langile batek egunean 8,50 laurleko irabazten ditu eta urtean 302 egun lan egiten du. Eralgi guztiak 1.638 laurleko baldin ba dira ¿zenbat aurrezten du urteoro?

## VIII

## Naasi saneuriak (bataz beste)

**Ebazkizun eredua.** 50'na laurleko 8 zaku irin, 52'na laurleko 12 zaku iriñekin nastu dira; nasiaren zakua ¿zenbatean aterako da?

8 zaku iriñen aldiña da  $50 \times 8 = 400$  laurleko.

12 » » » »  $52 \times 12 = 624$  »

20 » » » »  $1.024$  »

Eta zaku 1'en aldiña da  $1.024 : 20 = 51,20$  laurleko.

**Erantzuna.** Irin nastuaren zaku batek 51,20 laurleko aldin du.

**3536** Ontxia 0,75 laurleko ardotik 25 ontxi eta ontxia 0,85 laurleko ardotik 75 ontxi nastutzen dira, nasiaren ontxia zenbatean ateratzen da?

**3537** Igarazai batek nastutzen ditu 8 zaku gari 54'na laurlekoak, 12 zaku garagar 35'na laurlekoekin; nasari n zakua zenbatean ateratzen da?

**3538** Gurbil batean botatzen dira 200 ontxi ardo, ontxia 0,86 laurlekoa ta 20 ontxi ur; ¿zer saneufi izango du nasiaren ontxiak?

**3539** Anaztokia 8,50 laurleko akeitatik 40 anaztuki ta 10,20 laurleko akeitatik 20 anaztuki nastutzen ditu salostedun batek. ¿zenbatean saldu bear du nasiaren anaztokia 148 laurleko irabazi nai baldin ba-ditu?

**3540** 80 eunontxi gari, 42 laurlekoa eunontxia, nastu

dira 58'na laurleko 40 eunontxirekin; 260 laurleko irabazi nai baldin ba-dira ¿zenbatean saldu bear da eunontxia?

**3541** Ardolari batek 78 eunontxi ardo 75'na laurlekoan eunontxia, nastutzen ditu 125 eunontxi 56'na laurlekoakin ¿zenbatean saldu bear eunontxia ez irabazi ez galdu egiteko?

## IX

## Burdiak

**Ebazkizun eredia.** *Txifingari batek 15 aneurkin igarotzen ditu gabeukibetean eta zaldi batek 8.950 neurkin aldi berean; ¿zenbat neurkin geigo igarotzen ditu txifingariak zaldia baño gabeukibetean.*

Txifingariak egiten ditu 15.000—8.950 neurkin = 6.050 neurkin geigo gabeukiko.

**Erantzuna:** Txifingaria 6.050 neurkin geigo ibiltzen da zaldia baño.

**3542** Bultzi batek 8 gabeukitan 256 aneurkin igarotzen ditu, ¿zer abiadura du?

**3543** Bilbel batek gabeukiko 56 aneurkin egiten ditu ta besteak 43 bakafik: esan zenbat auferago juango dan lenengoa 9 gabeukiren buruan.

**3544** Madrid eta Burgos'en bitartea 363 aneurkin da burnibidez. Burgos'tik eta Madrid'tik zenbat uruti egongo da Madrid'tik irteten dan bultziazkar bat, 6 gabeuki ibilita gero, gabeukiko 54 aneurkin egiñaz?

**3545** Ikasle bat ikastetxetik 485 neurkiñera bizi da. Arkitu zenbat ibili dan ikaslea urtebetean ikastaroko 214 egunetan egunean bi bider joan etofi egin badu ikastegira.

**3546** Bi sugurdi irteten dira bata bestearen aurkako bidez, bat gabeukiko 65 aneurkiñeko abiaduraz eta bestea 48'koaz. 8 orduren buruan zer bitarte izango dute? (Mañaz azaldu bedi ibilia).

**3547** Bidari batek 18 egunean 288 aneurkin ibili bear zuan. Lenengo 12 egunetan egunean 20 aneurkin egin zitun; gañerako egunetan ¿zenbat aneurkin ibili bear ko zuan?

**3548** Gabaukiko 40 aneurkin ibiltzen dan idazkitzabultzi bat goizeko 5'etan irten da; 3 gabeuki geroago be-

rarizko bultzia bide beretik gabeukiko 70 aneurkiñeko abiaduraz irten da ¿ze gabeukitan ařapatuko du berarizko bultziak idazkitza-bultzia?

**3549** Bibel bat gabeukiko 48 aneurkin ibiliaz 15 gabeukitan ibiltzen da; arki bedi: 1.' zenbat ibili dan; 2'gn. ibili ori bera egiten zenbat aldi bearko luken gabeukiko 60 aneurkin egiten ditun beste bilbel batek.

**3550** Oñezko bat eta txiřingari bat, 108 aneurkin bi-tarte dauden bi uritatik irteten dira bata bestearen bila. Oñezkoak gabeukiko 5 aneurkin egiten ditu ta txiřingariak 22 aneurkin; ¿zenkat gabeukiren buruan alkar arkituko dute?

## X

## Irabazia-Galera

**Ebazkizun eredia.** *Saloskari batek upel bat ardo erosten du 765 laurlekotan eta 845 laurlekotan saltzen du; ¿zenbat irabazten du salketan?*

Saloskari batek irabaziz saltzen dunian degu:

**Irabazia=Sal saneuřia—Eros saneuřia.**

Saloskariak irabazten du:  $845 - 765 = 80$  laurleko.

Erantzuna: Irabazten du 80 laurleko.

EIKUNA

845 Salketa

— 765 Erosketa

---

80 Irabazia

**3551** Otargile batek 10 zume eze sorta erosten ditu 175 laurlekotan. 100 otar egiten ditu eta 550 laurlekotan saldu; eskulana 284 laurleko ordaindu ba-du, ¿zenbat irabazi du otargileak?

**3552** Zarzale batek 2.750 laurlekotan erosten du eředi bat. Befitutze bat egiteak 235 laurleko eramaten dizkio eta gero 4.000 laurlekotan saltzen du, ¿zer irabazi atera du?

**Ebazkizun eredia.** *Abeldun batek txekor bat 524 laurlekotan erosten du eta zerbait aldiren buruan 475 laurlekotan saldu bear izaten du; ¿zenbat galdu du?*

Galeraz saltzen danean degu:

**Galera = Eros saneuría — Sal saneuría.**

Galera da  $524 - 475 = 49$  laurleko.

Erantzuna: 49 laurleko galdu ditu.

EIKUNA

524'an erosi

— 475'an saldu

---

49 galdu

**3553** Arotz batek 425 laurlekotan izpetzen du eñedi bat. Zuragatik 295 laurleko eraman dizkiote; burnigauzengatik 27 laurleko ta leiartzagatik 46 laurleko. Eskulana, gañera 76 laurleko ordaindu du; ¿zenbat galdu du arotzak?

**3554** Emakume baseñitar zabar batek 440 laurlekotan erosi zuan txekor batekin 46 laurleko galdu zitun, gañera 497 laurlekotan erositako oñoak 375 laurlekotan saltzen ditu ¿zenbat galdu du guztira?

**3555** Ginbail salerosle batek 38 ginbail erosi zitun 32'na laurlekotan, baña eñolda-garbitzera beartuta 28'na laurlekotan saldu bear izan zitun; ¿zenbat galdu zun guztira?

**3556** Txifinguts bat 245 laurlekotan saltzean 75 laurleko galdu dira; zenbatean saldu bear ko zan 75 laurleko irabazteko?

**3557** Oskigile batek 30 laurlekotan saltzen du 24'ko oski biko bat; ¿zenbat biko saldu izango ditu 224 laurleko irabazi baldin ba-ditu?

**3558** Aureli'k 4 gizirudi erosi ditu 38'na laurlekoan eta 164 laurlekotan saldu ditu; ¿zenbat irabazi du gizirudi bakoitzaz?

## XI

### Irabazi osoa, mozkiña

**Ebazkizum erødua.** *Iru langilek etxe bat erosi dute 12.600 laurlekoan; 13.560 laurlekoan saltzen dute, ¿Zenbat izango da bakoitzaren irabazia?*

Irabazi osoa izan da  $13.560 \text{ lrk} - 12.600 \text{ lrk} = 960$  laurleko.

Bakoitzaren irabazia izan da  $960 : 3 = 320$  lrk.

Erantzuna. Bakoitzaren irabazia 320 lrk. izan da.

**3559** Arotz batek gabeukiko 0,95 laurleko irabazten du ta 8 gabeuki lanegin egunero. Esan: 1'go, eguneroko irabazia; 2'gn, asteroko irabazia (sei egun); 3'gn. ilero-ko irabazia (26 lanegun).

**3560** Goxogile batek egunean 3,75 laurleko artzen ditu txinditan eta ostatua, 3,50 lrk. irizten dana. ¿Zenbat da goxogilearen egiazko irabazia?

**3561** Ostalari batek eraentzen ditu 16 gela, ileko 65'na laurlekotan; 14, ileko 45'na laurlekotan eta 8 ogoki 40'na laurlekotan; ¿zenbat artzen du guztira ilean?

**3562** Salerosle batek 19 eokin zati erosi ditu bakoitza 285 laurlekotan; gutxika, neurkiñeko 11,50 laurlekotan saltzen baditu, ¿zenbat irabaziko du zati bakoitzak 32 neurkin izan ezker?

**3563** Arazodun batek egunean 7,25 laurleko irabazten ditu ta bere emazteak 4,80 laurleko; ¿zenbat irabazten dute bien artean 26 laneguneko ilabetean?

**3564** Idaztilari batek amamaiko (12 amabiko) idazkortz-kutxa 3,50 laurlekoan erosten du; idazkortz bakoitza 0,05 laurlekoan saltzen ba-du ¿zenbat irabaziko du kutxa bakoitzean?

**3565** Igalisaltzale batek anaztiki sagaña 0,65 laurlekoan erosten du eta 0,90 laurlekoan saldu. ¿Zenbat irabaziko du 25'na anaztakiko 15 otar saltzen baldin ba-ditu?

**3566** Ikuzkile batek urte betean 4.450 ator garbitu ditu bakoitza 0,25 laurlekoan; 980 galtzazpi bakoitzeko 0,20 laurlekoan; eta 13.800 musuzapi 0,05'na laurlekoan; ¿zenbat irabazi ileko?

**3567** Zaldiketari batek 17 zaldi erosi zitun buruko 1.025 laurlekoan; 1.145 laurlekoan saldu zun bakoitza; ¿zenbat irabazi zun?

**3568** Ornitzale batek 45 olasko erosten ditu 125 laurlekotan. 12 saltzen ditu 3,95'na laurlekotan, 26 3,75'na laurlekotan eta gañerakoak 3 laurlekotan bakoitza, ¿zenbat irabazi du?

**3569** Jostun batek ator bat egiteko, neurkiña 1,25

laurleko aldin duan 2,40 neurkin oial andeatzen ditu ta gañera laguntzale bati 1,70 laurleko ordaintzen dio bakoitza egitea. Ator bakoitza 6,75 laurlekoan 3 amabiko saltzen baditu zenbat irabaziko duan arki bedi.

**3570** Iragotzale batek 37 zaldi dauzka, bakoitzaren eguneroko xaupena 4,25 laurleko dala. Bakoitzaren akurak nagusiari egunean 15 laurleko batz beste ematen badizkio; ¿zenbat irabazi izango du 30 lanegunetan?

**3571** Unaztiki ikatzak 135 laurleko jaso du, eun-aztiki 20 laurlekotan saltzen baldin bada ¿zenban irabaziko da unaztiki bakoitzeko?

**3572** Notin batek lilitegi batez inguratutako txalai bat erosten du. Txalaia 18.600 laurleko ainbat da ta lilitegia 5.710 ainbat. Guztia 26.850 laurlekotan saltzen bada, ¿zenbat da bere irabazia?

**3573** Saloskari batek 3 amabiko atzabal erosten ditu 4'na laurlekoan, 4 ausi ta gañerakoak 5,50'na laurlekoan saltzen ditu. Arkitu irabazia.

**3574** Ontxiko 0,55 laurleko ordaindu zan ardoa ontxiko 0,55 laurlekon salduta 57 laurleko irabazten dira. ¿Zer eden zuan gurbiak?

**3575** Ardolari batek gurbi bat ardo erosten du 125 laurlekotan; ontxiko 0,75 laurlekoan saltzean 38 laurleko irabazten dira. ¿Zenbat ontxi zeuzkan gurbiak?

**3576** Selerosle batek 32 txal erosten ditu 28'na laurlekotan; guztiak 1.008 laurlekotan saltzen ditu, ¿zenbat irabazten du txal bakoitzean?

**3577** 75'na anaztakiko 4 zaku akeita erosi ditut, 100 anaztakiak 340 laurlekotan. Bidariena 25 laurleko ta saferako zerga 8,10 laurleko ordaindu ditut gañera. ¿Zer mozkin aterako det anaztiki akeita 4,25 laurlekotan saltzen baldin ba-det?

**3578** Itzai batek 3 egun egin ditu zamaketan. ¿Zer mozkin atera du 75,50 laurleko artu baldin baditu ta eguneko 4,25 laurleko bere elikaturan eta 7,50 laurleko 3 zaldie-nean eralgi bada-ditu.



## XII

## Gauzen ordañezka

**Ebazkizun eredia.** *6 idi saldu dira 1.271'na laurlekotan eta artu danaz ardiak erosi dira, buruko 62 laurlekotan; ¿zenbat ardi erosi dira?*

6 idien aldiña da  $1.271 \times 6 = 7.626$  laurleko.

7.626 laurlekokin erosiko dira  $7.626 : 62 = 123$  ardi.

Erantzuna: 123 ardi erosiko dira.

**3579** Salostari batek neurkiña 8,50 laurleko oialaz ordaintzen du neurkiñak 13 laurleko jasoan dun iruleduna; ¿zenbat neurkin iruledun emango dizkiote 78 neurkin oial ematen baldin ba-ditu?

**3580** Sendi batek asteoro 15 ontzi ardo andeatzen ditu, ontzia 0,60 laurlekoan; ardoaren ordañez zenbat garardo erosi ote dezaken jakin nai da ontzi garardoaren saneufia 0,80 laurleko izan ezker.

**3581** Baseñitar emakume batek eramaten ditu azokara 4 biko oñaxko, 5 amabiko añautza ta 3,50 anaztiki gurin. Oñaxkoak 4,25 laurlekotan saltzen ditu bakoitza, añautzak 3,70 laurlekotan amabikoa eta guriña 9 laurlekotan anaztakia. Artutako txindiaz ¿zenbat neurkin oial erosiko ditu neurkiña 6 laurlekotan?

**3582** 16 neurkin oialek 50 neurkin barkilek ainbat aldin dute. Oialak neurkiñeko 2,50 laurleko aldin ba-du, ¿zenbat neurkin bat barkilek?

**3583** Baseñitar emakume batek jakin nai luke zenbat zaku olo, zakuko 19 laurlekoan, saldu bearko ditun 26 zaku irin, zakuko 28,50 laurlekoak, erosi al izateko. Arki bedi.

**3584** 100 laurleko 3 txindingi aldatu nai dira 25 laurleko txindingitan eta ogerlekotan, txindingiak ainbat ogerleko artzen dirala; zenbana izango dira?

**3585** Baseñitar emakume batek saldu ditzake ilero 1.400 ontzi esne, ontzia 0,40 laurlekoan. Jakin nai da zerk

irabazi geigo emango dion, esnea zuzenean saltzeak ala guriña egín eta anaztuki guriña 9,50 laurlekotan saltzeak. 20 ontzi esnek anaztuki 1 gurin ematen dula erizten da.

## XIII

## Zati berdingeak

**Ebazkizun eredia.** *Notin erukitsu batek 150 laurleko banatzen ditu bi beartsuren artean, lenengoak bigaíenak baño 30 laurleko geigo artzeko eran.*

Lenengo beartsuak artuko ditu lenbizi 30 laurleko.

Berdin banatzeko geldituko dira  $150-30=120$  laurleko.

Bigaíen beartsuak artuko ditu  $120 : 2=60$  laurleko.

Lenengoak artuko ditu  $60+30=90$  laurleko.

Erantzuna. Artuko dute: 1'goak 90 laurleko; 2'gnak 60 laurleko.

**3586** Bi eokin zatik 50 neurkin neurtzen dute. Bata 15 neurkin geigo ba-da bestea baño, ¿zenbat neurkin luze da bakoitza?

**3587** Batera 130 anaztuki azta duten bi kutxa erosten ditu salostedun batek. Lenengoak bigaíenak baño 50 anaztuki gutxigo aziatzen ba-du, ¿zenbat bakoitzak?

**3588** Juli ta Joseba'k batera 95 laurleko dauzkate aúrezkitegian. Juli'k Joseba'k baño 15 laurleko geigo, ¿zenbat dauka ume bakoitzak?

**Ebazkizun eredia.** *Bi txiroren artean banatu bitez 12 laurleko, batak besteak alako iru izango ditun eran.*

Lenengo txiroak izango ditu 3 zati ta bigaíenak 1.

Bi txiroak batera izango dute  $3+1=4$  zati.

Bigaíenak artuko du  $12 : 4=3$  laurleko.

Lenengoak artuko du  $3 \text{ lrk} \times 3=9$  laurleko.

Erantzuna: Batek 9 laurleko ta besteak 3 lrk artuko dituzte.

**3589** 48 intxaur bana bitez 2 umeren artean bigaíenak lenengoaren erdia izango dun eran.

**3590** Salostedun batek 2 kutxa akeita erosten ditu bien azta 180 anaztuki izanik. Lenengoak bigaíenak alako iru azta du, ¿zenbat bakoitzaren azta?

**3591** Bi gurbilek batera 18 amontxi dauzkate; lenengoak bigaíenak alako bi; ¿bakoitzak zenbat?

**3592** Augustin'ek 24 laurleko dauzka; Koldobika'k ark baño 8 laurleko geigo ta Augusta'k Koldobika'k baño 12 geigo; ¿zenbat daukate guztien artean?

**3593** Etxe batek 10.500 laurleko aldin dauka, besteak aren irurena ta 400 geigo; ¿zenbat ta bigaíenaren saneuía.

**3594** Ume batek 14 urte ditu; bere aitak semeak baño 25 geigo, aitonak aitak baño 40 geigo. ¿Zenbat urte bakoitzak eta zenbat guztien artean?

**3595** 2.800 laurleko jabegotza bat zortzi lagunen artean banatu bear da; aietako 4'ek 500 bana laurleko artu bear dute, eta gañerakoak gelditzen dana zati berdiñetan: azkenengo auetako bakoitzak ¿zenbat artuko du?

**3596** Notin batek 1.830 laurleko zor ditu. Batean ordaintzen ditu 1.200 laurleko ta gañerakoa iru emanaldi berdiñetan; emanaldi auetako bakoitzean ¿zenbat ordaindu zuan?

**3597** Zaldiketari batek iru zaldi erosten ditu 4.300 laurlekoz. Lenengoa 1.345 laurleko ordaintzen du, bigaíena 275 laurleko gutxigo lenengoa baño. ¿Zenbat irugaíena?

**3598** Irakasle batek ikasle bati agintzen dio 128 idazti 3 apalatan ipintzeko, lenengoan 32 idazti ta beste bietan berdin ipiñiaz; azkeneko bi apaletan ¿zenbana idazti izango dira?

**3599** ¿Zenbat da lau zenbakiren geikiña lenengoa 848 izanik, bigaíena lenengoa baño 18 geigo, irugaíena bigaíena baño 28 geigo ta laugaíena irugaíena baño 16 gutxigo dirala?

**3600** ¿Zenbat da lau ordainkizunen geikiña lenengoa 285 laurleko, bigaíena lenengoa baño 48 laurleko gutxigo, irugaíena bigaíena baño 54 gutxigo ta laugaíena irugaíena baño 65 gutxigo baldin ba-dira?

**3601** Iru belaitako bikoren saneuía zenbat da lenengoarena 18 laurleko; bigaíen bikoarena 10 laurleko geigo ta irugaíenarena beste biena ainbat izan ezker?

**3602** Etxegile batek 17 igeltsulariren artean 670 laurleko banatu nai ditu; 5'i 50 laurleko ematen dizkie; beste 6'ri 40 laurleko ta gañerakoei gelditzen dana, ¿zenbana ematen die auetako bakoitzari?

**3603** Sendi batean semeak egunean 2,25 laurleko irabazten ditu; amak semeak alako bi ta aitak amak alako bi; ¿zenbat irabazten dute guztien artean 26 laneguneko ilabetean?

**3604** Anaztiki babañuna 1,20 laurlekoan da, ta ugo-ua 0,70; bakoitzetik 15 anaztakik ¿zenbat jaso izango dute?

**3605** 71,10 laurlekoz barezti ainbat akeita erosi da. Anaztiki akeitak 5,50 laurleko jaso baldin ba-du ta bareztiarenak 2,40, ¿zenbat anaztiki erosi dira?

**3606** Etorkiduru baten 3 bilobak eta 2 lengusuk 192.000 laurleko banatu bear dituzte. Lateñiari zergaz 9.000 laurleko eman bear dizkiote, 8.000 laurleko zar bati ta 27.500 biloba bakoitzari; ¿zenbana dagokie lengusuei?

**3607** Kaiola baten saneuñia 9,40 laurleko da; bañuan dagon txoriak kaiolak alako bi; ¿zenbat da guztiarena?

**3608** Txindizai batek iru ordainketa egin ditu; lenengoan 625,30 laurleko ordaindu ditu; bigañenean 145,70 laurleko geigo ta irugañenean 85,75 laurleko geigo bigañenean baño; ¿zenbat ordaindu du guztira?

**3609** Etxegile batek 360 laurlekoz saritzen ditu lanarizaia ta 12 langile. Lenengoari 36 laurleko ematen dizkio ta gañerakoa langileai ainbanatzen die; ¿zenbat artzen du auetako bakoitzak?

**3610** ¿Zenbat da 5 zenbakiren geikiña lenengoa 48 baldin ba-da; bigañena lenengoaren bikoitza, irugañena bigañenaren bikoitza ta oñela boskañeneraño?

**3611** ¿Zenbat da 5 zenbakiren geikiña jakiñik lenengoa 1.053 dala; bigañena lenengoaren irurena, irugañena bigañenaren irurena eta oñela dirala boskañeneraño?

**3612** Bultzi bat 345 bidaztikin irteten da Madrid'tik. Lenengo geltokian 25 bidazti jetxi ta 18 igotzen dira; bi-

gañenean 34 jetxi ta 23 igo; irugañenean 18 jetxi ta 24 igo ta laugañenenan 48 jetxi ta 51 igo. ¿Zenbat bidazti dira orduan bultzian?

**3613** – Osin bat sakontzeko 19 neurkin seikonde lur atera dira. ¿Zenbat ordaindu bear izan da lenengo neurkin seikondeagatik laurleko 1, bigañenagatik 1,50, irugañenagatik 2 laurleko ta oñela azkeneraño neurkin bakoi-tzean 0,50, geituaz ordaindu bear izan ba-da?

## XIV

## Zatikiak

Ebazkizun eredia: *Aundienetik txikienera jari bitez*

*zatiki auek:*  $\frac{1}{4}, \frac{1}{9}, \frac{1}{3}, \frac{1}{13}, \frac{1}{15}, \frac{1}{5}$ .

Zemaki berdiña duten zatikien artean zematenik txikiena dutenak dirala aundien ba-dakigu. (*Zenb. 104'gn, 2'gn Berekitasuna*).

Erantzuna.  $\frac{1}{3}, \frac{1}{4}, \frac{1}{5}, \frac{1}{9}, \frac{1}{13}, \frac{1}{15}$ .

**3614** Aundienetik txikienera ipiñi bitez zatiki auek  $\frac{2}{15}, \frac{14}{15}, \frac{4}{15}, \frac{7}{15}, \frac{11}{15}, \frac{8}{15}, \frac{13}{15}$ .

**3615** Zatiki auek zematenkide egin bitez  $\frac{2}{3}, \frac{7}{8}$  eta  $\frac{3}{4}$ ; aundienetik txikienera ipiñi ta geiketa egiñik geikiña esan.

**3616** Artalde batean 54 aari daude. Esan bedi artaldearen zer zati adirazten duten: 1'go aari *bat*'ek; 2'gn. 9 aarik; 3'gn. 35 aarik; 4'gn. iru zati auek zer zati guztiya adirazten duten.

**3617** Ikastegi batean 45 ikasle daude, lenengo sañean 15 ikasle dira, ta bigañenean 30. Zatiki eran adirazi bitez bi sañetako ikasleak. Ausi bitez.

**3618** Artu bedi: 1'go. 84'ren erdia; 2'gn.  $\frac{1}{3}$ ; 3'gn.  $\frac{3}{4}$ .

**3619** 96 ontzi zeuzkan gurbil batetik  $\frac{2}{3}$  artu dira, ¿zenbat ontzi gelditu dira?

**3620** ¿Zenbat da loíatz baten luzera  $\frac{1}{5}$ , 250 neurkin baldin ba-da?

**3621** Madrid'tik Miranda'ra burnibidez  $90 \frac{2}{5}$  legua daude ta Miranda'tik Irun'a  $37 \frac{3}{5}$  legua; ¿zenbat dago Madrid'tik Irun'a?

**3622** Eíolda bat ordaintzeko eman dira aldi batean  $65 \frac{2}{5}$  laurleko; beste batean  $54 \frac{3}{4}$  laurleko eta azkenik  $89 \frac{3}{10}$ ; ¿zenbat zan eíolda?

**3623** Erosi ditut gaban bat  $85 \frac{3}{4}$  laurlekoz eta ginbail bat  $16 \frac{2}{5}$  laurlekoz eta oraindik  $58 \frac{3}{5}$  laurleko gelditu zaizkit, ¿zenbat txindi nuan?

**3624** ¿Zenbat gelditzen da 450 laurlekotik  $\frac{1}{2}$ ,  $\frac{1}{3}$  eta  $\frac{1}{10}$  eralgi ondoren?

**3625** Iru xaboi kutxak 60 anaztaki azta dute. Lenengoak  $18 \frac{2}{5}$  anaztaki ta bigaíenak  $26 \frac{3}{4}$  anaztaki; irugaíenaren azta bílatu.

**3626** Losko batek  $\frac{3}{4}$  beteta 600 ontxi dauzka; oso beterik zenbat?

**3627**  $12 \frac{2}{3}$  neurkin albo dun lauki berdiñaren bílaldea ¿zenbat da?

**3628** Kutxa batek  $25 \frac{3}{4}$  anaztaki barezti zeukan; 4 alditan saldu dira  $3 \frac{4}{5}$  anaztaki; ¿zenbat gelditzen da?

**3629** Langiíe batek asteoro edaten ditu  $2 \frac{3}{4}$  ontxi ardo; ¿zenbat xautu izango du urte beteren buruan (52 aste) ontxi ardoa 0,50 laurlekoan ba-dago.

**3630** Biltegi batek gabeukiko  $25 \frac{5}{6}$  ontxi ur artzen ditu eta  $14 \frac{2}{3}$  galdu; ¿zenbat ur eukiko du  $3 \frac{1}{2}$  gaubekiren buruan?

**3631** Ikastegi batean ikasleko  $1 \frac{3}{4}$  neurkin alde batera ta  $1 \frac{1}{2}$  neurkin bestera ditun azala bear dala atera da. 45 ikaslerentzat bear dan azala arki bedi.

**3632** 210 ontxi ardo sartu nai dira ontxiaren  $\frac{3}{4}$  artzen duten oníletan, ¿zenbat onil bearko dira?

**3633** Eule batek neurkin bat oial eundu du 3 gabeu-

kitan eta beste batek neurkin bat 4 gabeukitan. Galdetzen da: 1'go. bakoitzak zenbat egiten dun gabeukiko; 2'gn. biak zenbat egiten duten gabeuki batean; 3'gn. lenengoak bigarrenak baño zenbat geigo egiten dun gabeuki betean.

**3634** Amontxiaren  $\frac{2}{5}$  ainbat dan neurí bat 46 bider artzen duan upela baten itxikia zenbat da?

**3635** 5 zagon eta 3 gaban batera 574 laurleko aldin dira. ¿Zer saneurí du zagon batek gaban batena  $95 \frac{1}{5}$  laurleko baldin ba-da?

**3636** Joskin batek 20 neurkiñeko oial zati bat dauka gorutzak egiteko; gorutz bakoitzarentzat neurkiñaren  $\frac{5}{8}$  bear ba-du, ¿zenbat aterako dira zatitik?

## XV

## Lain-araua

Ebazkizun eredia. *Iturri batek 96 ontzi ur ematen ditu 6 iroirenetan, gabeukiren  $\frac{3}{4}$ , etan ¿zenbat emango du?*

Gabeukiaren  $\frac{3}{4}$ 'ak 45 iroiren dira.  
6 iroirenetan 96 ontzi ematen ditu.

Erantzuna: 720 ontzi emango ditu.

$$45 \quad \times \quad x \quad = \quad 96 \times \frac{3}{4}$$

$$x = \frac{96 \times 45}{6} = 720 \text{ ontzi.}$$

**3637** Neurkin 1,52 luze dan gazte batek neurkin 1,32'ko itzala egiten du; aldi berean 6,40 neurkiñeko itzala egiten duan tantai batek zer goibe izango du?

**3638** 100 anazteki garik bataz beste 80 anaztiki irin ematen dutela jarkiñik, zenbat anaztiki irin aterako dira 240 anaztiki gariz?

**3639** 8 zaldi elikatzeko 56 anaztiki belafondu bear dira; ¿zenbat belafondu bearko da 30 eguneko ilabetean gudarozte bateko 910 zaldiak elikatzeko?

**3640** Lan bat egiteko 24 langilek 9 egun bear izan dituzte; 8 egunean bukatzeko zenbat langile bearko ziran?

**3641** 12 neurkin eokin erosi dira 96 laurlekoz; 50'na neurkiñeko bi eokin satik zer jaso izango zuten?

**3642** Txifindulari batek 176 aneurkin egin ditu 8 gabeukitan; ¿zenbat egin izango zitun 15 gabeukitan?

**3643** Bilbel batek 5 ontzi gasolina andeatzen du 60 aneurkiñeko; ¿zenbat andeatuko du 100 aneurkiñetan?

**3644** Langile batek 91 laurleko irabazten ditu 13 egunetan; ¿zenbat egunetan lan egin bearuko du 364 laurleko irabazteko?

**3645** Jon'en 42 nabaritz on artu ditu 14 ebazkizun ondo ateratzegatik; ¿zenbat nabaritz on artu izango zitun ondo ateratako 27 ebazkizunegatik?

**3646** 100 anaztaki gari iriñez 140 anaztaki ogi egin ditezke; ¿zenbat anaztaki ogi egingo dira 240 anaztaki iriñez?

**3647** 4 aztaki ziriku ateratzeko 32 aztaki pipil bear ba-dira, ¿zenbat anaztaki pipil bearuko dira 36 anaztaki ziriku ateratzeko?

**3648** Eredi batzuk 57 aneurkin bidean bialtzeko 25 laurleko ordaindu ba-dira. zenbat ordaindu bear izango zan 140 aneurkin bidean bialtzeko?

**3649** 7 langileri astebete ordaintzeko nagusi batek 336 laurleko ematen dizkie; ¿zenbat ordaindu izango zien 12 lagileri bi astetako lanagatik?

**3650** Beñidazle batek egunean 2 gabeuki lan egiñaz 14 egun bearuko ditu lan bat bukatzeko ¿zenbat bearuko ditu egunean 7 gabeuki lan egin ezkerro.

**3651** Aiztogile batek 8,75 laurleko irabazten ditu 5 amabiko aiztoren salketan; ¿zenbat irabaziko du baldintza beretan 240 aizto, mota berekoak, saldu ezkerro?

**3652** Langile batek 132 laurleko artu ditu 24 eguneko lanen ordañez; ¿zenbat jaso izango zun guztira 18 egun geigo lan egin ba-zun?

**3653** Orma bat egiteko 20 langile bear izan ziran 18 egunetan; ¿zenbat bear izango ziran lan bera 6 egunetan bukatzeko?

**3654** Lanartun batek bitzabal bat pikeztatzeko 14 geunean 44 langile bear ditu. Lana 11 egunetan bukatu



nai baldin ba-du, esan bedi: 1'go. zenbat langile bearko ditun; 2'gn. zenbat langile geigo bearko ditun.

**3655** 50 anaztakiko 4 akeita kutxa ordaintzeko 1.800 laurleko eman dira; ¿zenbat ordaindu bearko dira 45'na anaztakiko 7 kutxa?

**3656** Orma bat eraikitzeko 9 langile jardun dira 3 astetan; ofelakoxe beste orma bat astebetean egiteko, ¿zenbat langile bearko dira?

**3657** Urontzi baten itsasartea ustutzeko uraga batek 21 gabeuki bear izan ditu; ¿zenbat bearko zuten 3 uragak?

**3658** Langile batek 30 laurleko irabazten ditu 5 egunetan; ¿zenbat irabaziko du 24 egunetan?

**3659** Arazodun batek 24 laurleko xautzen ditu 4 egunetan; ¿zenbat aldi bearko du 72 laurleko xautzeko?

**3660** Salgai baten 3 anaztiki 39 laurleko ordaindu dira; ¿zenbat ordaindu bearko dira 11 anaztiki?

**3661** Iturri batek 20 ontzi ur ematen ditu 3 iroirenetan; ¿zenbat ur emango du gabeuki 1 1/4' etan.

**3662** Zaldi batek 8 egunetan 60 anaztiki belarõndu andeatzen ditu; ¿zenbat bearko da 36 egunetan alikatzeke.

**3663** 20 olok ilabetean 480 afautz ipiñi ba-dituzte; ¿zenbat ipiñiko dituzte aldi berean 36 olok.

**3664** Neurkin 1,70 goibeko gizon batek 0,60 neurkiñeko itzala egiten du; une berean 24,60 neurkiñeko itzala egiten duan yualtegi baten goibea, ¿zenbat da?

**3665** ¿Zenbat ordaindu bearko dira 2.520 egur sorta, 5'eko bakoitza laurleko 1,50 ordaintzen baldin ba-da?

**3666** 5 azao garik 3 ontzi ale ematen ba-dute, ¿Zenbat emango dute 145 azaok?

**3667** 5 azao garik 3 ontzi ale ematen ba-dute, ¿zenbat azao bearko dira 81 ontzi izateko?

**3668** 3 ator egiteko 8 neurkin eun bear ba-dira; ¿zenbat ator egingo dira 616 neurkiñez?

**3669** 75 ontxi argamelek 90 laurleko aldin ba-dute. ¿zein izango da 232 ontxiko upel baten saneuñia?

**3670** 85 txopin itxasurek anaztahi 1 gatz. 0,22 laurlekoan saltzen dana, ematen dula jakiñik, 117.640 ontxi itxasuretan dagon gatzak ¿zer aldin izango du?

**3671** ¿Zenbat ordaindu bearako da 38 biko oskiñegatik, 8 biko geigo ba'lira 150 laurleko ordaindu bearako litzakela jakiñik?

**3672** ¿Zenbat ordaindu bearako dira 23 galtza, 34 gatik 23' rena baño 170,50 laurleko geigo ordaindu bear izan ezkerok?

## XVI

## Onenbateko ainbaten araua, 12'ko 13...

**Ebazkizun erødua.** *Bitxi-saltzale batek jostoratz aneikoa 4,50 laurlekotan erosten ditu, ta 8 oratz, 0,15 laurlekoan saltzen ditu, ¿zenbat irabazten du aneiko?*

1.000 jostoratzan sal-saneuñia biñ dezagun.

8 jostoratzak 0,15 laurlekoan saltzen dira.

1.000                    x                    »                    »                    »

$$x = \frac{0,15 \times 1.000}{8} = 18,75 \text{ lrk.}$$

1.000 jostoratzetan irabazten du  $18,75 - 4,50 = 14,25$  lrk.

Erantzuna. 1.000 bakoitzeko 14,25 lrk. irabazten du.

**3673** 1.250'na buztinafeko 5 gurdiren aldiña arki be-di, aneiren saneuñia 18 laurleko dala.

**3674** Idaztilari batek argitaltzañe batengandik 104 idazti artzen ditu, bakoitza laurleko 1,75'ean. 13'regantik 12'rena bakañik ordaintzen baldin ba-du, esan: 1'go. Zenbat idazti ordainduko ditun; 2'gn. oien aldiña.

**3675** Ikaslari batek 650 sortatxo ler artzen ditu ta 12'gatik 13 ematen dizkiote. Euneko 9 laurleko ordaindu ditu eta bakoitza 0,15 laurlekoan saltzen du; ¿zenbat irabazten du?

**3676** Eunekoa 5,80 laurlekotan zer jaso dute 15.800 sagrafek?

**3677** ¿Zenbat da 108 aizkoren saneuñia amabikoa 16 laurlekotan?

**3678** Olajaun batek ilero 95 600 onil saltzen ditu, ¿zenbat irabazi izango du urtebete ta erdiren buruan anei onileko 24,50 laurleko irabazten baldin ba-ditu?

**3679** Saloskari batek 225'na ontxiko 4 upel ugor erosten ditu eunontxia 90 laurlekotan; 100'eko 8 laurleko eraxten ba-dizkiote ¿zenbat atera bearko du?

**3680** Etxe bat estaltzeko bear izan diran arbelak 326 laurleko ordaindu dira; ¿zenbat euneko bear izan dira aneikoa 16,30 laurleko ordaindu ba-dira?

**3681** 100 jostorátzen azta 5 aztaki baldin ba-da, ¿zenbat amabiko daude 1.890 aztaki ditun lotura batean?

**3682** Gabeukiko 125 ontxi laspel andeatzen ditun biurtodi bat egunean 4 gabeuki egoten da piztuta 148 egunetan; ¿zenbat xautzen da 1.000 ontxik 0,45 laurleko aldin ba-du?

**3683** Notin batek erosten du zaldi bat 1.400 laurlekotan eta zalburdi bat 1.200 laurlekotan. Zerbait aldiren buruan guztia saltzen du, zaldi saneuñiaren euneko 9 irabaziaz eta zalburdiaz euneko 4 galduaz ¿Zenbat irabazi?

**3684** Adolpa'k 300 laurleko ordaindu ditu 630 ontxi ardo; ontxia 2 laurleko 10 ontxi ugořekin nastu du; ¿zenbatian saldu bearko du ontxia euneko 15 irabazi nai ba-ditu?

## XVII

# Aldia

**Ebazkizun eredua.** *Iroirenetara biurtu: 3 gabeuki; 4 1/2 gabeuki; 5 g. 20 iroiren; 8 1/4 gabeuki.*

Erantzuna: 1'go 3 gabeukitan  $60 \times 3 = 180$  iroiren dira.

2'gn 4 1/2 gabeukitan  $(60 \times 4) + 30 = 270$

3'gn 5 g. ta 20 iroiren  $(5 \times 60) + 20 = 320$

4'gn 8 g. ta 1/4'etan  $(60 \times 8) + 15 = 495$

**3685** Iroreikitara biurtu 4 iroiren, 6 iroiren, 3 iroiren ta 24 iroireki.

**3686** Esan zenbat iroiren diran 80 iroreiki, 95 iroreiki, 132 iroreiki.

**3687** Urteak 365 egun eta ilabeteak 30 egun izanik esan zenbat urte, ilabete ta egun diran 824 egun.

**3688** Egazki batek 70 ontzi gasolina andeatzen ditu gabeukiko; ¿zenbat andeatuko du 12 egazkiko talde batek 8 gabeukiko egazkaldian?

**3689** Iturri batek 600 ontzi ematen ditu 2 gabeukitan. Esan: 1'go iroirenean zenbat ematen duan; 2'gn zenbat iroiren bearko ditun 3.500 ontziko biltegi bat betetzeko.

**3690** Idazkitza-egazkia Madrid'etik Sevilla'rako aratsaldeko 2'tan irteten da ta 6'retan iritxi. Gabeukiko 148 aneurkiñeko abiaduraz juaten baldin ba da, ¿zer tarte dago Madrid'etik Sevilla'ra zuzenean?

**3691** Ume batek 70 taupada dauzka iroireneko: ¿zenbat taupada gabeuki betean? ¿Eta 2 1/2 gabeukitan?

**3692** Txirindulari batek 10 neurkin egiten ditu iroireki batean; ¿zenbat bide igaro izango du 3 gabeuki ta 20 iroirenetan?

**3693** Gabeuki batek 60 iroiren ditu; gabeuki baten 34 iroiren igaro diranean, ¿zenbat gelditzen oraindik?

**3694** ¿Zenbat aste dira 2.576 egun? (Egunak 24 gabeuki ditu ta asteak 7 egun). ¿Zenbat aste dira 8.064 gabeuki?

**3695** ¿Zenbat gabeuki ta iroiren dira 31 eguneko ilabeteetan?

**3696** ¿Zenbat iroiren dira 363 enguneko urtebetean?

**3697** Iturri batek 4,25 ontzi ematen ditu iroireineko, ¿zenbat emango ditu 30 eguneko ilabeteetan?

**3698** *Txorien onegiñak*. Bi txorik gabeukiko 18 zomoño eramaten dizkiete beren umetxoei bakoitxak; ¿zenbat zamoño zuzitu izango dituzte txori auek 17 egunetan egunero 14 gabeuki lan egiten ba-dute?

**3699** Menpeko batek urtean 2.460 laurleko irabazten ditu; bere lansaria ileko 25 laurleko geitzen baldin ba-zaio esan iruilabeteko zenbat irabazten du?

**3700** Notin batek urteko 1.825 laurlekoren etofia dauka; bataz beste egunean 3,75 laurleko xautzen ditu. ¿Zenbat auferatu izango du urte ta erdian?

**3701** Esan zenbat iroiren ta iroireki diran 24 gabeukitan. Orobat 30 gabeukitan.

**3702** ¿Zenbat iroireki dira 17 gabeuki 45 iroiren eta 23 iroirekitan?

**3703** Urontzi eraingidun batek 6 neurkin auferatzen ditu iroireki batean eta besteak 13 neurkin. Esan bedi zenbat bide geigo egiten dun bigarrenak iroiren batean, gabeuki  $\frac{1}{2}$  ' an, gabeuki  $\frac{3}{4}$  ' etan eta 12 gabeukitan.

**3704** Nere etxetik 200 neurkiñera dagon toki batera jun eta etofia egiteko 5 iroiren bear izan ditut; ¿zenbat aldi beariko nun 1.000 neurkin bide jun eta etortzeko?

**3705** Zarsaridun batek urtean 2.190 laurlekoren etofia dauka; ¿zenbat ote da bere eguneroko xaupena 3 urte-tako auferazpenak 1.368,75 laurleko ba-dira?

**3706** Itufi batek iroireneko 3,59 ontzi ur ematen ditu. ¿Zenbat ontzi emango ditu 3 gabeuki ta 45 iroirenetan?

**3707** Biseidun urtea lau urtean bein gertatzen dala jakiñik esan zenbat urte biseidun izango diran 1.932'tik 1.980'raño auek biak sartzen dirala.

**3708** ¿Zenbat urte dira 5.475 egun?

## XVIII

### Neurkin eraketa

**Ebazkizun eredia.** *Bide bat ariztatzea leño neurkiñeko 34 laurlekotan ateratzen da; guztia ariztatzea ¿zenbat joko du bidea 16 Euneurkin ta 5 neurkin ba-da?*

16 Eun. 5 n. 1.605 neurkin dira.

1.605 n. 34'na laurlekoan dira  $1.605 \times 34 = 54.570$ .

Erantzuna. 54.570 laurleko joko du.

**3709** ¿Zenbat euneurkin-mugañi dira 6 ta 8'gañen aneurkiñak galgatzten dituzten aneurkin-mugañien tartean? (Irudia egin).

**3710** Txaiðe batek 2 aneurkin eta 46 aneurkin luze

ditu; ¿zenbat bider ezañi bearko ote da, ura neurtzeko, ameurkin galarzua?

**3711** Soñeko bat ebakitzeko 4 neurkin oial bear dirala jakiñik, ¿zenbat soñeko ebaki al izango ote dira 4 ameurkin luze diran bi oial zatiaz?

**3712** 277,50 laurlekoz 370 ontxi ardo erosi dira; amontxi bikoitzaren saneuria ¿zenbat da?

**3713** ¿Zenbat ordaindu bearko dira 3 Eunontxi, 9 amontxi eta 8 ontxi: erdia 1,25 laurlekoan eta beste erdia 0,95 laurlekoan ontxiko?

**3714** 12 zaku babañun erosi dira 13 amontxiko zaku bakoitza 24 laurlekotan; gutxika saltzen da ontxia 0,50 laurlekoan, ¿zenbat irabazten da zakuko?

**3715** Tximist-ari neurkiñak 11,50 laurleko aldin du, ¿zenbat ameurkin 1'ek? ¿Eta euneurkin batek?

**3716** Matsar ipintzea neurkiñeko 3 laurlekoan ateratzen da; ¿zenbatean aterako da Euneurkin 1?

**3717** Bultzibide burni bat 12 neurkin luze da; ¿zenbat burni oietakoak bearko dira 5 aneurkin ta euneurki 1'eko bidea osatzeko (biko bidea).

**3718** Sail batek 2 euneurkin ta 4 neurkiñeko bilaldea du. Lau ariko loroz esitzea 612 laurleko ordaindu da ¿zenbatean ateratzen da neurkin esia?

**3719** 13.000 laurleko jaso zun mastia beñiro saldu zan 17.500 laurlekotan; ¿zenbat zan mastiaren azala orueko 37,50 laurleko irabazi ba-zan?

**3720** 1.856 neurkin lautuko lursail bat 15.200 laurlekotan erosi da. Zatika saltzen da, eta 1.200 neurkin lautu ditun auetako batek 11.800 laurleko eman ditu. ¿Zenbat da gañerako azala eta zenbatean saldu bearko da guztira 8.759 laurleko irabazteko?

**3721** 540 orueko masti batetik zenbat aterako da, orue bakoitzak 42 ontxi ematen ba-ditu ta 220 ontxik 75 laurleko aldin ba-du?

**3722** 6 orueko soro bat lantzeko 78 gabeuki bear izan dira; orue bakoitzeko ¿zenbat aldi bear izan zan?

**3723** Unaztaki ikatzak 125 laurleko aldin du; ¿zenbat eunanaztaki batek?

**3724** ¿Zenbat ogerleko txindi bear dira 25'na laurleko 48 txindingi ta 125 txindi 2'na laurleko berdintzeko?

**3725** Ondorengo mota oyetako bakoitzetik 24 txingi geituta zer geikin emango duten esan; 5 laurlekoak, 2 laurlekoak, laurleko 1'ekoak, 0,50 lrrakak, 0,25'koak, 0,10'k 0,05 laurlekoak eta 0,02 laurlekoak.

**3726** 1.032 laurleko kopuru bat 5 laurleko, 2 laurleko ta laurleko 1'eko txindi zenbaki berdiñaz osatua dago, ¿zenbat txingi mota bakoitzekoak?

**3727** Ontzi batek 12 ontzi artzen ditu; 54 eunontxi ur dauzkan losko batetik ¿zenbat ontzikada aterako dira?

**3728** Ontzi batek 5.244 ontzi ardo dauzka; 2 eunontxi ta 28 ontxiko ¿zenbat gurbil bete alko dira kopuru oñekin?

**3729** Esnelari batek 15 bei dauzka bat az beste 20 ontxi esne ematen diotenak. Atera bedi zenbat esne ematen duten 12 egunetan eta erantzuna eunontxitan eman.

**3730** Okela zati bat aztatzeko arakin batek azaspil batean anaztaki bateko aztakin bat, eunaztakiñeko 2 eta beste 2 amañaztakiñekoak ipintzen ditu; ¿zer azta zun okelak?

**3731** Eunanaztaki bat gari ordaindu da 127 laurleko; 70'na anaztokiko 5 zakuren saneuñia ¿zenbat izango da?

**3732** Ontxi bat ardo 0,45 laurleko ordainduta, ¿zenbat ordaindu bear ko da 47 eunontxi ta 25 ontxi?

**3733** ¿Zenbat jaso izango dute 24 egurneurkin bi koitz eguñek 3 egurneurkin 33 laurlekotan dirala?

**3734** Urontzi batek 325 egurneurkin egur eramaten ditu eta besteak 78 egurneurkin geigo; ¿zenbat bien artean?

**3735** Saloskari batek 640 egurneurkin egur erosten ditu, erdia 9,85 laurleko ordaintzen du neurkiñeko ta gañerakoa 10,50 laurleko. Oñez gañera egurneurkiñeko 0,20 laurleko ordaintzen ba-dizkio neurtzaleri, ¿zenbat ordainduko du saloskariak?

**3736** 5 laurleko txindi batek 25 aztaki azta dula ta 22,50 aztaki zilar utsetan eta gañerakoa tupiki dula jakinik jakin nai da 84 txindi 5 laurlekotan zenbat zilar uts eta zenbat tupiki dan.

**3737** Laurleko bateko zilarrezko txindi batek 5 aztaki azta ba-du ¿zenbat laurleko jañi bearko ote dira aztaspil batean 1.500 aztakiko aztakin batekin orekan jartzeko?

**3738** Moñoi batek ilero 120 laurleko irabazten du ta bere saria iru ilabeteka jasotzen du, aztakitan zer azta jasoko du bakoitzean?

**3739** Ludia bi lurburuetatik ziar esituko luken loro batek 40.000 000 neurkin luze izango lituzke. Loro onek ¿zenbat unaztahi (1.000 anaztahi) azta izango luke 16 neurkiñek 3.500 aztaki azta dula balizkatuta?

**3740** Ontxi bat ardok 992 aztaki azta du eta ontxi bat gaimelek 915 aztaki ¿zenbat azta izango luke gaimelez betetako gurbil datek ardoz beteta 250 anaztahi ta utsik 26.800 anaztahi aztatzen baldin ba-ditu?

**3741** Ontxi bat itsasurek 1.026 aztaki aztatzen ditu; esan 24 n<sup>3</sup> itsasurek zenbat azta geigo izango dun ur afontak baño.

## XIX

### Ordainkizunak

Ondorengo ordainkizunak ipiñi:

**3742** Garzia'tar Pantzeskari bialdu dizkiogun gauzak:

Epala 1; 4 anaztahi gazta, anaztahi 6 laurlekoan.

» 12; 5 kutxa opilto, kutxa 10 laurlekoan.

» 18; 3 kutxa piko, kutxa bakoitza 8,50 laurlekoan.

**3743** «Bruño Idaztegi» - tik eskabide au egin didate: 40 Zenbakizti-lengai Ikasti, 1,50'na laurlekoan; 140 Ainbakuntza jarduketa 0,65'na lrk.; 50 Ezagutza Altxoña, 3'na laurlekoan; 50 Balendin, 2,25'na lrk.; 40 Lutelesti, 3,25 lrk. 0/0 25 ufidara egiten ba-dit; ¿zenbat ordaindu bearko det?



# ARKIBIDEA

Ingoskiak

## LENENGO ATALA

<i>1'go. ikaskaia.</i> Zenbakera.....	5
Jarduketa.....	9
<i>2'gn. ikaskaia.</i> Zenbakera (jafaipena).....	10
Jarduketa.....	13
<i>3'gn. ikaskaia.</i> Eunekoak.....	16
Jarduketa.....	17
<i>4'gn. ikaskaia.</i> Milak eta miloiak.....	19
Jarduketa.....	22
<i>5'gn. ikaskaia.</i> Zenbakien irakurkera.....	24
Jarduketa (Berikusia).....	26
<i>6'gn. ikaskaia.</i> Eikun nagusiak.....	29
<i>7'gn. ikaskaia.</i> Zenbakeiketa.....	30
Zenbakeitegia.....	31
Zenbakeiketaren gertakunak.....	32
Zenbakeiketak.....	34
Ebazkizunak.....	42
<i>8'gn. ikaskaia.</i> Zenbakenketa.....	44
Zenbakendegia.....	46
Zenbakenketaren gertakunak.....	47
Zenbakenketak.....	49
Ebazkizunak.....	53
<i>9'gn. ikaskaia.</i> Zenbakoizketa.....	55
Zenbakoiztegia.....	57
Zenbakoizketaren gertakunak.....	58
Zenbakoizketak.....	61
Ebazkizunak.....	70
<i>10'gn. ikaskaia.</i> Zenbanaketa.....	72
Zenbanaketaren gertakunak.....	73
Zenbanaketak.....	76
Ebazkizunak.....	89

## BIGAREN ATALA

<i>11'gn. ikaskaia.</i> Zenbaki amarkiak .....	91
Jarduketa .....	93
<i>12'gn. ikaskaia.</i> Zenbakeiketa eta zenbakenketa .....	95
Jarduketa .....	97
Ebazkizunak .....	102
<i>14'gn. ikaskaia.</i> Zenbakoizketa ta zenbanaketa .....	102
Jarduketa .....	105
Ebazkizunak .....	115

## ZATIKIAK

<i>15'gn. ikaskaia.</i> Zatikien eraltze ta izendatzea .....	116
Jarduketa .....	118
<i>16'gn. ikaskaia.</i> Zatikien erkatzea .....	118
Jarduketa .....	120
<i>17'gn. ikaskaia.</i> Lenengo biurketa .....	121
Jarduketa .....	122
<i>18'gn. ikaskaia.</i> Bigaren biurketa .....	123
Jarduketa .....	124
<i>19'gn. ikaskaia.</i> Irugaren biurketa .....	124
Jarduketa .....	125
<i>20'gn. ikaskaia.</i> Laugarren biurketa .....	126
Jarduketa .....	127
<i>21'gn. ikaskaia.</i> Zatikien zenbakeiketa .....	128
Zenbakeiketak .....	130
Ebazkizunak .....	132
<i>22'gn. ikaskaia.</i> Zenbakenketa .....	133
Zenbakenketak .....	136
Ebazkizunak .....	138
<i>23'gn. ikaskaia.</i> Zenbakoizketa .....	139
Zenbakoizketak .....	140
Ebazkizunak .....	142
<i>24'gn. ikaskaia.</i> Zenbanaketa .....	144
Zenbanaketak .....	146
Ebazkizunak .....	148

## LAIN-ARAU

<i>25'gn. ikaskaia.</i> Lain-araua .....	149
Onenbateko ainbaten araua .....	152
Jarduketa ta ebazkizunak .....	152

## ALDI NEURIAK

26'gn. ikaskaia. Aldia'ren batekoak .....	156
Jarduketa ta ebazkizunak .....	157

## NEURKIN ERAKETA AMARKIA

27'gn. ikaskaia. Lenen-ezagutzak .....	159
Jarduketa .....	160
28'gn. ikaskaia. Luze neuríak .....	161
Jarduketa .....	163
29'gn. ikaskaia. Azal-neuríak .....	166
Landa-neuríak .....	168
Jarduketa .....	169
30'gn. ikaskaia. Kaizu-neuríak .....	173
31'gn. ikaskaia. Eguárentzako-neuríak .....	175
Jarduketa .....	176
32'gn. ikaskaia. Eden-neuríak .....	179
Jarduketa .....	180
33'gn. ikaskaia. Azta-neuríak .....	182
Jarduketa .....	184
34'gn. ikaskaia. Txindi-neuríak .....	186
Jarduketa .....	187

## DANEURTIZTIA

35'gn. ikaskaia. Leñoak .....	189
Jarduketa .....	191
36'gn. ikaskaia. Tardideak eta lertzokoak .....	192
Jarduketa .....	193
37'gn. ikaskaia. Elkarzutak; lertzoko motak .....	194
Jarduketa .....	195
38'gn. ikaskaia. Lautua .....	196
Jarduketa .....	197
39'gn. ikaskaia. Lauki luzatua .....	199
Jarduketa .....	200
40'gn. ikaskaia. Irukia .....	203
Jarduketa .....	204
41'gn. ikaskaia. Leñabíla .....	206
Jarduketa .....	207
42'gn. ikaskaia. Gogorak .....	209
Jarduketa .....	210
43'gn. ikaskaia. Mukulu biribilak .....	212
Jarduketa .....	213

## EBAZKIZUNAK

I	Zenbakeiketa eta zenbakenketa.....	214
II	Zenbakoizketa eta zenbanaketa.....	219
III	Erospen saneufia.....	224
IV	Salpen saneufia .....	226
V	Galgak .....	227
VI	Batekoaren saneufia.....	228
VII	Aufezketak.....	229
VIII	Naasi saneufiak.....	231
IX	Burdiak. Bidariak .....	233
X	Irabazia. Galdua .....	232
XI	Irabazi osoa. Mozkiña .....	234
XII	Gauzen ordañezka .....	237
XIII	Zati berdingeak .....	238
XIV	Zatikiak .....	241
XV	Lain-araua.....	243
XVI	Euneko ainbat, 12'ko 13... ..	246
XVII	Aldi-neufiak .....	247
XVIII	Neurkin eraketa .....	249



## Idazti ontako itz batzuen ikuña

---

### A

Akeita = café.  
Axot = tinta.  
Axotontzi = tintero.  
Adibide = ejemplo.  
Alkito = sillón.  
Aldin = valor.  
Anaztaki = kilógramo.  
Anaztakin = báscula.  
Anei = mil.  
Aneiien = milésima.  
Anontxi = kilolitro.  
Arazodun = empleado.  
Argaimel = petróleo.  
Arguntzi = lámpara.  
Arkakaratz = rosa (flor).  
Arkatz = lápiz.  
Arkai = bujía.  
Artezgalu = regla.  
Ara = diámetro.  
Araستا = coma.  
Aferdi = radio.  
Azta = peso.  
Aztaki = gramo.  
Aztakin = balanza, báscula  
Azter = análisis.  
Amarki = decimal.  
Amañen = décima.  
Amamaiko = gruesa (12 docenas).

### G

Gabeukatz = reloj.  
Gabeukazgile = relojero.  
Gabeuki = hora.  
Gaimel = aceite.  
Geigai = sumando.  
Geiketa = suma (operación).  
Geikin = suma (resultado).  
Gogor = sólido.  
Gupi = curva.

### K

Kaizu = volumen.  
Ken = menos.  
Kengai = minuendo.  
Kengi = sustraendo.  
Kenketa = resta (operación).  
Kenkin = resta o diferencia.  
Koitz = múltiplo.  
Koizkai = multiplicando.  
Koizki = multiplicador.  
Koizkin = producto de la multiplicación.  
Koizti = factor (multiplicación).  
Koizpe = submúltiplo.  
Kulatz = punto.

### Au

Auñezkitegi = Caja de Ahorros.

### Ai

Aindo = cantidad.  
Aizko = cortaplumas.  
Aizto = cuchillo.  
Ainbakuntza = cálculo.  
Ainbatu = calcular.

### E

Eden = capacidad, cabida.  
Elkarzut = perpendicular.  
Elizti = gramática.  
Eraen = alquilar.  
Ezkoztu = encerado.  
Ebazkizun = problema.  
Eunen = céntimo, centésima.  
Eikai = dato.  
Eikun = operación.

## D

Daneurtizti = geometría.  
Doipuru = Papa.

## T

Tartide = paralelo.  
Troskaki = porcelana.

## Tx

Txaide = calle.  
Txuntur = pirámide.  
Txunturbil = como.  
Txindi, txingi = dinero,  
moneda.  
Txindingi = billete de Ban-  
co.

## O

Ondore = resultado.  
Ontxi = litro.  
Onil = botella.  
Ordainkizun = factura.  
Oñalde = base.  
Oski = zapato.  
Obo = círculo.

## L

Lanartun = contratista (de  
obras).  
Lauki luzatu = rectángulo.  
Laurleko = peseta.  
Lain-arau = regla de tres.  
Lainkide = proporcional.  
Lertzoko = ángulo.  
Lertzokodi = polígono.  
Leábil = circunferencia.  
Leó = línea.  
Lebar = prisma.  
Leiar = cristal.  
Lobel = líquido.  
Liluntzi = florero.

## N

Neurkamañen = decímero.  
Neurkeunen = centímetro.

## U

Ugor = alcohol.  
Unaztaki = tonelada.  
Unei = millón.  
Urangi = naranja.  
Ur eriotu = agua destilada.  
Urutidazkin = telégrafo.  
Ustin = cero.  
Usnakunde = previsión.

## S

Saneuri = precio.  
Sasi-zatiki = quebrado im-  
propio.  
Seikonde = cubo.

## Z

Zatiki = quebrado.  
Zatiki - bena = quebrado  
propio.  
Zatidun = mixto (número).  
Zeatz = exacto.  
Zenbakatz = cifra.  
Zenbakenketa = resta, sus-  
tracción.  
Zenbakendegi = tabla de  
restar.  
Zenbakera = numeración.  
Zenbakeiketa = suma.  
Zenbakeitegi = tabla de  
sumar.  
Zenbakeitu = sumar.  
Zenbakoizketa = multipli-  
cación.  
Zenbakoiztegi = tabla de  
multiplicar.  
Zenbakoiztu = multiplicar.  
Zenbaki = número.  
Zenbakizti = Aritmética.  
Zenbanaketa = división.

Zenbanategi = tabla de dividir.  
Zenbatu = contar.  
Zemaki = numerador.  
Zematen = denominador.  
Zematenkidetu = reducir a común denominador.  
Zeinkun = definición.  
Zeintza = definición.  
Zutagañu = plomada.  
Zutlaugañu = escuadra.  
Ziz = moneda.

**I**

Ikastetxe = escuela.  
Ikastegi = clase, aula.  
Ikur = signo.  
Ikuñatz = sello.  
Iyeki = ejemplar.  
Idatzi = escribir.  
Idazkortz = pluma de escribir.  
Idazti = libro.  
Ingor = cartón.

Ingoski = página.  
Inguñazti = cuaderno.  
Ingi = papel.  
Iraterkari = arquitecto.  
Iroireki = segundo.  
Iroiren = minuto.  
Iruki = triángulo.  
Izki = letra.

**B**

Banagai = dividendo.  
Banagaiki = residuo, resto.  
Banaki = divisor.  
Banakin = cociente.  
Barkile = algodón.  
Bañu-erdi = centro.  
Boronbil = esfera.  
Buldu = cilindro.  
Burlaru = latón.  
Burme = hoja de lata.

**M**

Mukulu = cuerpo.

## Zuzendu bear diran okeak

---

Ingoskia	leñoa	dago	jañi bear
9...	31..	Erazlez .....	Zenbakatzez
11...	9...	beñamor .....	beñamar
11...	10...	iruramor .....	iruramar
29...	21...	emanen .....	Eikaien
32...	28...	<i>geikina zenbakatzen.</i>	<i>zenbakatzen geikiña</i>
56...	14...	emanak .....	eikaiak
60...	19-20	koizka .....	koizkia
103...	3...	09 .....	0,9
116...	11...	38 ontxi .....	38 ontxikin
117...	9...	<b>Zatikiak,</b> .....	<b>Zatikia,</b>
129...	16...	zematikidetzetik .....	zematenkilidetzetik
139...	16...	$\frac{2 \times 3}{9} \frac{6}{9} \frac{2}{3}$ .....	$\frac{2 \times 3}{9} = \frac{6}{9} = \frac{2}{3}$
149...	(Irudi ganean)	Trigo .....	Garia
149...	»	Harina .....	Iriña
153...	2...	<i>(kendu egin bear da)</i>	
154...	2...	iroirenetan.....	iroirenetan;
159...	8...	itxibeiko.....	itxikiko
162...	14...	<i>neurkiñerdi-bikoa</i> ..	bikoa. Neurkiñerdia
202...	10...	lautuka .....	lautuko
203...	13...	<b>lrukia albo</b> .....	<b>lrukia 3 albo</b>
207...	8...	<b>du</b> .....	<b>da.</b>
210...	14...	<i>ayal osoa</i> .....	<i>azal osoa</i>

---



